



# ARGIA

LAB-EK 50 URTE

## **Kontraboterean eta XXI. mendeko lokatzetan**

24-31. orrialdeak



#2.884 | 2024 / 09 / 15 | 4,00 €



**1954ko AEBetako  
migratzaileen deportazioak  
erakusten diguna**

12 | HISTORIA



**"Frantsesaren  
eragina inoiz baino  
indartsuagoa da"**

32 | MADDI KINTANA



**Enric Marcoren  
iruzurra zinemara,  
Moriartik**

44 | KULTURA

# Jakoba Errekondo

ren  
hitzaldi berezia  
eta kontsultategia

Irailak 26, 19:00etan

Tolosan, Topic-en

2025eko agenda eskuragai  
[argia.azoka.eus](http://argia.azoka.eus)



+ **Antton Olariaga**  
eta bere piztiak



+ **Unai Agirre**  
bertso zaharrak kantari



## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

## Iritziak

- 19 | KARMELO LANDA
- 20 | TERE MALDONADO
- 21 | MAIALEN ARTEAGA
- 21 | EDU ZELAIETA
- 22 | KIMETZ ARANA

## Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



AZALEKO IRUDIA: LAB SINDIKATUA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT

DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA



### 14 | OLATZ DAÑOBEITIA

Aurten tesia aurkeztu du: *Militantzia eta errepresio politikoaren azterketa feminista bat: 90eko Ezker Abertzaleko emakumeen kasua*. Danele Sarriguartek egin dion elkarrizketan salatu du "ikerketa mailan euskal gatazkarekiko dagoen isiltasuna. Munduko beste herrialde batzuetan gatazka-osteko prozesuetan ikerketa-proiektu asko, askotarikoak eta diruz lagundutakoak bultzatu dira. Gurean ez".

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

**Ez deitu deportazio masibo, deitu marketin kanpaina arrazista**

Urko Apaolaza

24 | EKONOMIA | LAB- EK 50 URTE

**Ezker abertzaleko baso hartatik, arbola bakarra zutik**

Xabier Letona

32 | EUSKARA | MADDI KINTANA

**"Badirudi lagunarteko hizkera, Hegoaldean eta Iparraldean, ezin dela banandu gaztelaniatik eta frantsesetik"**

Onintza Irureta

36 | GORPUTZ HOTSAK | AITOR BEDIA LAUNETA

**"Oso arriskutsua da pentsatzea edonork irakatsi dezakeela zeinu hizkuntza"**

Olaia L. Garaialde

44 | KULTURA | ENRICH MARCO

**Pertsonaia bi, larru berean**

Gorka Peñagarikano

48 | KULTURA

**Musika Hamabostaldia: gogoeta batzuk**

Montserrat Auzmendi

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:


**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

**Gobierno de Navarra**  **Nafarroako Gobernua**

**Jabetza**  
Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

**Erredakzioa**  
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,  
Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano,  
Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner,  
Lander Arbelaitz, Leire Artola,  
Manex Moreno, Mikel Garcia, Onintza  
Irureta, Olaia L. Garaialde, Urko Apaolaza,  
Xabier Letona, Zigor Oleaga

**Diseinua**  
Maitane Gartzandiandia

**Argazkilaria**  
Dani Blanco

**Produkzioa eta inprimaketa**  
Antza S.A.L.

**Administrazioa**  
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

**Salmenta**  
Karlos Olasolo, Pello Basurto

**Banaketa**  
Olatz Kortat

**Azokaria**  
Mikel Olabide

**Idazkaritza**  
Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,  
Bego Zuza

**Web garapena**  
Asier Iturralde

**Informatika**  
Iametzta interaktiboa, S.L.

**Lege gordailua:** SS 837-2012  
**ISSN:** 0213-909X  
**Batzorde parekidea:** 72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

**Posta elektronikoak**  
komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

**Telefonoa**  
943371545

**Gipuzkoa**  
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

**Nafarroa**  
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA  
honako enpreekin batera:

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**

**ADUR** software  
productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,  
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza  
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat  
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,  
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.




Ekoedizioaren Institutuko  
bazkide da ARGIA

**OLATUKOOP**


Ekonomia sozial eraldatzailearen  
sareko kide gara





# Lehenak eta hirugarrenak

Burundi, Kenya, Uganda, Ruanda... baina Kongoko Errepublika Demokratikoa ari da gehien jasaten mpox-en epidemia. Urtea hasi zenetik 17.000 bat kasu atzeman dituzte, eta 600 lagun inguru hil dira; gehienak, haurrak. Osasun krisi beteak izan arren, kontinente oso batek ez du behar besteko baliabiderik bere 1.200 milioi biztanleak babesteko. Momentuz jasotakoak baino 50 aldiz txerto gehiago behar dituzte. Kongoko Osasun ministroak oroitarazi du 2022ko mpox-en beste epidemian Mendebaldeak ez zuela ongi jokatu. Txerto gutxi eta berandu bidali zituztelako, nahiz eta soberan edukitoki Europan eta AEBetan. Eta COVID-19aren garaian ere Afrikako buruzagiek "txertoen akaparamendua" salatu zuten. Osasun globala ezin da bere buruari "lehen mundu" deitzen dionaren ustezko "elkartasunaren" mende egon, are gehiago Mendebaldea izanik gainerakoak "hirugarren mundua" izatera kondentatzen dituen.

 M. LUNANGA / EFE

AXIER LOPEZ

# Iruñeko Alde Zaharrea etxe turistikoari lizentzia gehiago ez ematea erabaki du Udalak

ERREDAKZIOA

**E**H Bildu, PSN, Geroa Bai eta Zurekin taldeek lege egitasmoa adostu dute, Iruñeko Alde Zaharrea etxe turistikoari lizentzia gehiago ez emateko. Akordioak "izaera prebentiboa" duen "hirigintza-aldaketa" du ardatz, hiru helbururen bueltan oinarrituta: auzoko bizi ereduari eustea, merkataritza-sarea defendatzea eta turismo jasangarria bultzatzea.

"Udalak aurre hartu behar dio etxebizitza iraunkorrak ordezkatzen dituzten pisu turistikoaren ugaztatzeak herritarrak auzotik kanporatzea ekar dezakeen arazoari", azaldu dute alderdiok. Alde Zaharrea 186 etxe turistiko daude gaur egun, auzoko etxeen % 2,8 eta Iruñeko etxe turistikoaren %55 baino gehiago (337 daude orotara). Bost urtean 90 ireki dituzte, eta beste 21 eskaera daude eginak.

Etxe turistikoaren kopurua "handiegia" dela-eta, "turismo jasangarria" bultzatuko du Iruñeko Udalak, eta gisa horretako etxeek auzoan daukaten "ondorio negatiboa" leuntzen saiatuko da, hala nola etxebizitzaren prezioen garestitzea, hirigune his-

"Turismo jasangarria" bultzatuko du Iruñeko Udalak, eta gisa horretako etxeek auzoan daukaten "ondorio negatiboa" leuntzen saiatuko da

torikoaren identitatea galtzea eta ohiko eta hurbileko merkataritzak jasaten dituen zailtasunen larriagotzea. "Merkataritza espezializatu eta egokitu egiten da turistek zerbitzuak eskaintzeko, eta, horren ondorioz, prezioak igo eta ordutegiak zabalitzen dira. Ondorioz, eskaintza txikiagoa izaten da biztanleria iraunkorraren beharretarako", azaldu dute udal-taldeek.

Aurreikuspenak betez gero, urtea amaitu baino lehen onartuko da lege-egitasmoa. Aldaketak ez du eraginik izango hotel, pentsio edota aterpetxeen gainean. ●

# Michel Barnier kontserbadorea, Frantziako lehen ministro

ERREDAKZIOA

**M**acronen lehen ministro izendaturiko Michel Barnier kontserbadorea ministro ohia da, Europako Batasuneko komisario ohia ere bai eta Brexiteko negoziatzailea izan zen.

Hauteskundeak duela bederatzi aste egin ziren, uztailaren 7an, eta aurkeztutako hiru indar nagusietatik ezkerreko batu zuen FHB Fronte Herritar Berriak (193 diputatu) irabazi zituen, eskuin muturrari ozta-ozta aurre hartuta.

Ohikoan lehendakariak legebiltzarreko hauteskundeak irabazi dituen alderdiaren lehen ministroa izendatzen du, baina oraingoan berehala adierazi zuen ez zuela horrelakorik egingo. Kontua da legebiltzarrean gehiago osoa izateko 289 diputatuetatik oso urruti geratu zela ezkerreko, baina are eta urrutiago Macronen Ensemble pour la République (166 diputatu) edo Marine Le Penen eskuin muturra (142).

Barnierrek 73 urte ditu eta V. Errepublikan izan den lehen ministro adinekoena izango da. Emmanuel Macron lehendakariak aitortu du ezohiko izendapena izan dela, eta argitaratu duen agirian azaldu du legebiltzarrean sostengu gehien izango duen hautagaia izendatzen ahalegindu dela.

## "GOBERNU KOLPEA"

Euskal Irratietan kontatu dutenez, Fronte Herritar Berriko alderdiek "gobernu kolpea" salatu, eta Barnierren gobernuaren zentsuratzearekin mehatzu egin dute. EH Baik gaitzetsi du izendapenak ez duela uztaileko bozeta bozka emaitzen gehiengoak erabakitakoa ordezkatzen. Eskuin muturra baikor agertu da, haatik. Marine Le Pen RN alderdiko buruak begi onez ikusi du Barnierren izendapena, eta aukera bat ematearen alde agertu da. Izan ere, errepublikanoen eta macronisten babesa ez ezik, eskuin muturraren babesa beharko du lehen ministro berriak bere politikak aitzina eramateko. ●



# Psikiatra bat



UXUE APAOLAZA LARREA

**O** satu dira, horretarako bitartekoak jarri, eta nahiko azkar. Ze lasaitua, dena isildu denean. Baina balantza handia izan da, eta begien atzean izu bat gehiago pilatu zaie, uneren batean pentsatu dutelako, gainera, agian, ez zirela inoiz itzuliko, edo ez guztiz. "Pasa zitezkeen bakardadea mota hori ezagutu gabe" pentsatu dut.

Bakardadea zure buruarekiko, arrotzu zaizun eguneroko ohekide nahitaezko horrekiko. Bere aldetikibiltzen hasi da, eta zu, geratzen bada horretatik apur bat (zorte hori izan dugu batzuk), hor zokoan egongo zara, neuronaatzean uzkurtuta, izututa. Ivan Ferreiro abeslariari entzun nion, uste dut, espresioa; "beldur kosmikoa". Ez dago zeure buruari diotzun beldurra baino handiagorik, errealitate esan diotzuna desitxuratu, arima, ia nortasuna gezurtatu, eta Poeren ipuin batean sartzen zaituenari. Osatuta ere betirako adibiliko zara beste zu hori berriro ez agertzeko.

Bakardadea inguruarekiko. "Ez dute ulertzen" erregu, berriro, izutua: "Ez, ez dute ulertzen", berez, agian, pneumonia bat ulertzen ez dugun moduan; garunageratzen zaigu arnasarik gabe, eta garun oxigenatuak ez daude prestatuta oreka kimikoa hautsita zer egiteko gai diren erakusteko garezurrean daraman horri.

Bakardadea psikiatra ez den eta bost minutuz entzun dizun medikuak errezeta liburua baino askoz gehiago ireki ezin duenean zerbitzu publikoetara jotzen baduzu. Bakarrik geratuko zarela adierazten zaizunean, zureari izenik jarri gabe, ez zuk, ez inguruak ulertu gabe, eta arimak eta nortasunak eta buruko kontuek sortzen duten psikologia merke eta esoterismo suntsitzailen esku, eta, beraz, sendatu gabe. Eta, beraz, esan dizute hiltzen duen gaixotasun batzuk Osakidetzak ez dituela tratatzen. Ez daude psikiatrak denontzat. Ez daude psikiatrak ia inorentzat. Eta gaixotasun psikiatrikoek, depresioak kasu, hil egiten dute. Hilgarriak dira.

Osatu dira, beraz, horretarako bitartekoak jarri, eta nahiko azkar. Bazutelako ia berrehun euro kontsulta pribatua ordaintzeko. Zeren eta Osakidetzak jarritako epeetan, ez zuketen mediku bat beharko, leiho onena zein den seinalatuko liekeen norbait baizik, gainerako bakardadea kisisiltzen dituen guztizko hartara jauzi egiteko. Eta jauzi egitean mila azalpen existentzial. Ados. Niknahiago nuke jauziarenaurretik, serotonina pixka bat. Eta zerbitzu publiko duinak, klaseak hil ez gaitzan, beste behin. ●



## Politika

Joseba eta Eñaut Alvarez aita- seme donostiarrek 750 euroko isun bana jaso zuten iaz, eta orain, espetxe zigor eskaera iritsi zaie (urte eta erdikoa Eñauti, bi urte eta erdikoa Josebari), 2023ko San Sebastian bezperan Plaza Berrian presoan etxeratzearen aldeko pankarta bat jartzen saiatzeagatik.

## Errausketa

Errausketaren Aurkako Mugimenduak giza katea egin du Donostian, udalaren hondakinen kudeaketa salatzen: "Hondakinen turismoan ere liderra da Donostia: inguru guztitik dirua, ondasunak eta jendea erakarri... eta berak sortu eta gaizki kudeatutako zaborrak inguru guztira esportatu".

## Hezkuntza

Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza publikoko sindikatuek (STEILAS, ANPE, AFAPNA, LAB, CCOO, ELA eta UGT) irailaren 26rako greba deialdia aurkeztu dute. Ratioak jaiste, erosteko ahalmena berreskuratzea, langainkarga murriztea eta irakaslegaien egonkortzea eskatzen dute.

# Europa



ULA IRURETAGOIENA

Europar sentimendua duen lagun gutxi ditut, ez dakit europartasuna identitate bat izatera iristen ote den. Baina Europara bidaia egiten dugunean, adiskidetasun bat atera daiteke, ze gurean eta bertan gertatzen den lurraldetasun norabide nagusiak elkarbanatuak dira; bertan erabakitzen baita diru-funtzen banaketa eta norantz goazen, ez etxean. Europako beste herrialdeetan ikusten diren hiri eraldaketa estrategikoak gurera iritsiko dira, bakoitzak bere erritmo eta berezitasunekin, baina agenda berean sarturik gaude denok. Industrializaturiko hirien eraldaketa planteatu zen garaian, hirigileen artean oso ohikoa zen beste europar hirietara bisita egitea, arazo antzekoaren aurrean biderapenak aurreikusteko. Aurrea hartutako erabakiekin ikasi, zerk balio duen eta zeintzuk diren arriskuak frogatzeko. Hirien museifikazioa eta ondoren etorri den turistifikazioa, hiri estrategien arteko errezeta *dealer* baten ondorioa da.

Hirien berdefinizio kapitalistaren hurrengo urratsa berdetasunetik etorriko dela nabaria da Europako hiri nagusietatik udako turismoa egin ostean. Bizikletari eskainitako bide sare eta aparkalekuak nonahi, herriguneez trafikoa mugatua eta bertakoa, berebil elektrikoaren inpaktu neurtua, irla beroen efektua baretzeko poltsiko-parkeak eta landarediaren presentzia nagusia. Zentroetako trafikoa gutxiak isiltasun huts bat ekartzearekin batera, landareen berdetasuna hazi da espaloi eta fatxadetan, hormigoien zatuzko erraz baten ostean. Landareni basatiagoa aurkitzen da espaloi ertzetan, parkeetan mantenu gabeko landare eta zuhaitzak probatzen dira, soropila ia desagerraraziz lorategigintzatik. Baina interes gehien pizten duena da hainbat belardiren zaintza komunitatearen gain dagoela, administrazioaren kudeaketatik kanpo. Berdetasun komunitario batek bertakotasun izpiritu bat esna dezake, azken hamarkadetakoa Europar lokaturik egon dena hirien eraldaketa esparruan. ●



## Desioen zerrenda

LEIRE ARTOLA ARIN

Irtsi da beste behin iraileko hasiera haizea. Ikasturte berriari ekin diogu eta, aurten bai, hamaika desio eta helburu beteko ditugula hitzeman diogu geure buruari. Desio berriak desio zaharrei batu zaizkie, eta “egin beharrekoen” zerrenda amaigabea bezain garestia bihurtu zaigu. Ez da kasualitatea, izan ere, badago makinaria erraldoi bezain ezkutuko bat arduratzen dena zerrenda hori gero eta luzeagoa izan dadin.

Hasi da *influencer*-en publizitatea martxan, paradisuzko helmuga turistikoaren argazkiak atzean utzita: soinurik gabeko xurgagailua “etxerako inbertsiorik onena” dela diote, azken puntako kirol-oinetako horiek lesiorik ez izateko ezinbestekoak direla, eta halako jogurt marka *ecofriendly*-agoa eta hortaz osasuntsuagoa dela, besteren artean. Enpresek ondotoxak dakite produktuak saltzeko modurik eraginkorrena dela *influencer*-en bidez publikoari “desioak sortzea”, eta horrexegatik 50.000 jarraitzaile baino gehiago dituztenei batez beste 1.000 eta 2.000 euro artean ordaintzen diete argitalpen bakoitzagatik.

Instagram, TikTok, YouTube eta abarrek *influencer*-en %97k eduki komertziala duten mezuak argitaratzen dituzte, baina %20k baizik ez dute sistematikoki adierazten publizitatea dela. Alegia, bostetik lauk ezkutuko publizitatea egiten dute, Europako Batzordeak 2024ko otsailean argitaratutako datuen arabera. Europako 23 estatuk hartu zuten parte ikerketa horretan, eta aztertu zituzten sare sozial nagusietako 576 *influencer*-en argitalpenak. Ondorioa esperotakoa izan zen: gehiengoak ez du betetzen kontsumitzaileak babesteko legea. Are gehiago, aztertutako *influencer*-en %40 euren marka propioak saltzen ari dira, sare sozialek ematen dieten bozgorailua erabilia, eta horietako %60k ez du aipatzen publizitatea denik. Zenbait gobernu ari dira neurri berriak egokitu nahian, baina gaur egun oso ezohikoa da *influencer* dirudun horiek zigorrik jasotzea kontsumitzaileen eskubideak ez betetzeagatik.

Kontuan hartzeko da ezkutuko publizitate hori lotuta dagoela modari, bizi-estiloari, edertasun kanonari, elikadurari, bidaiatzeari eta ariketa fisikoari zein kirolari. *Influencer*-ek duten boterea ez da nolana hikoia, eta gazteen artean duten eragina agerian geratu da azken urteetan: tratamendu estetikoak egin dituzten 16 eta 25 urte arteko gazteen kopurua %14 eta %20 artean hazi da, Medikuntza Estetikoaren Espainiako Elkartearen (SEME) azken txostenak dioenez. Emakumezkoak dira %69, baina gizonezkoen eskaria ere handitzen ari da; %31 dira, SEMEren esanetan.

“Norbera librea da hautatzeko zer egin bere bizitzarekin eta gorputzarekin” mantra defendatzen dute gero eta *influencer* gehiagok, eta algoritmoak –sare sozialen jabeek– diskurtso liberal hori saritzen du. Ikasturteko helburuen zerrenda birpazatzerakoan, ariketa egin dezakegu: zergatik ditugu desio horiek aurten? Nondik sortu zaizkigu? ●





# 66

pertsona hil dira beroagatik abuztuan, Hego Euskal Herrian. Espainiako Estatuan 1.386 pertsona hil dira gehiegizko beroagatik abuztuan –iazko abuztuan baino %3 gehiago–, Osasun Ministerioaren Carlos III. Institutuak emandako datuen arabera.

# 100

eskola elebidunetan 5.700 ikaslek ikasiko dute ikasturte honetan Ipar Euskal Herrian, lehen mailan. Bigarren mailan, 16 kolegio eta 4 lizeotan 1.600 ikaslek. Iparraldeko eskola publikoen %60 elebiduna izanen da ikasturte honetan.

# 84

urteko gizon bat atxilotu du Ertzaintzak Gasteizen, bere emaztea hiltzen saiatzeagatik. 76 urteko emazteari arma zuri batekin eraso dio eta zauri larriak ditu.

## “Ezin da baieztatu foam jaurtigaia izan zenik”

### BINGEN ZUPIRIA

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburua, martxoan PSGren kontrako futbol partiduan Anoetan larri zauritutako Amaya Zabarte Realeko zalearen kasuz.

2024-09-03



## “GU BELDURTU ETA ZAPALTZEKO MEKANISMO BAT IZAN DIRA ISUNAK”

### IBONE ALONSO ETA AIZPEA URANGA, ERNAI

Ernai Gazte Antolakundeko 133 kideri isunak jarri dizkiete, 290.500 euro guztira. Diru bilketa abiatzeaz gain, manifestazioa egin dute irailaren 8an, Donostian.

IRUTXULOKO HITZA (2024-09-02)

“Udaltzain guztiek euskara jakin beharko lukete, herritarren eskubideak daude jokoan”

### EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA

2021ean EAEko udaltzain laguntzaileentzako lan-poltsa bateratua osatu zuten. EAEko Auzitegi Nagusiak atzera bota du orduan ezarritako hizkuntza eskakizuna, B2 maila, eskakizun “neurrigabea” dela argudiatuta. Kontseiluak ebazpena kritikatu du.

2024-09-06



## Botere guztia



DIANA FRANCO EGUREN

**B**adira zenbait pertsona aztertzeako direnak, euren artean Elon Musk. Duten askatasunaren ideiak dena kontrolatzeko beharretik datorrela dirudi, botere guztia izatetik, botere guztia izanda negozioak sortzea errazagoa delako, eztabaidarik ez baitago; eredu hegemonikoak indartsu hazten dira. Gauzak ez dira ordea egun batetik bestera gertatzen, lan handia dago atzetik. Pixkanaka-pixkanaka sistemak sortzen dituzte, morfologia askotarikoak. Elon Musken kasuan, nire ustez, gizakion arteko harremanetan garrantzia duten teknologietan eragiteko ahalegina nabaria da: telekomunikazioak (Starlink), sare sozialak (X), ordaintak (PayPal), bestelako harreman interfazeak (Neuralink)...

Pasa den astean, Brasilen, X sare soziala (nik oraindik Twitter deitzen dudana) itxi egin zuten. Badirudi urteetako gatazka baten emaitza izan zela, sare horretan eskuin muturreko zenbait jarduerak Brasilgo gizartean izan zuten eragina medio: albiste faltsuak, diskurtsoa manipulatzeko zuten talde antolatuen jokatzeko moduak, eta Brasilgo Kongresuaren aurkako erasoan sare horretako zenbait kontu jokatu zuten papera, besteak beste. Brasilgo Auzitegi Goreneko epaile batek Elon Muski agindu zion X sareko zenbait kontu ixteko. Elon Muskek, agindua saihesteko, Xren Brasilgo ordezkari legala kendu zuten, epaileak ezin zezan inorengana zuzendu. Epaileak, baina, X sarea blokeatzeko agindua eman zion Brasilgo Internet operadore guztiei. StarLink azpiegituraren jabea izanda, Elon Muskek ezetz esan zuten, StarLink erabiltzaileek X izaten jarraituko zutela. Brasilen subiranotasuna kolokan jarri zuten. Baina StarLinkek ordezkari legala du Brasilen eta epaileak esan zion bere kontu korranteak izoztuko zizkiola, agindua betetzen ez bazuen. Bere jarduera ekonomikoa herrian mantentzeko aukera galtzeko zorian, Elon Musken StarLink zerbitzuak ezin izan zuten X sarea irekita mantendu.

Plataforma handietako zenbait jabeek Erdi Aroko jauntxoek bezala jokatzeko dute, boterea kontzentratu eta euren ez den beste botererik ez dute aitortzen. Dena ustezko askatasun baten bila, askotan hirugarren batzuk zapaltzeko askatasun bilakatua. ●

## Ikasturte berrian ere, gerra ate joka

AXIER LOPEZ

**U**dan ohikoa izaten da albiste asko opor garaien etenak esaltzea. Eta egia esan, estalita baleude, kasik hobe. Gerra hotsen doinuak jarraitzen baitu dantzan jarritzen kontinente zaharra.

Ukrainako gerraren izenean, AEBek misil nuklearrak ezarri nahi dituzte Alemanian. Ekialdeari begira, prefosta. Lehen aldia litzateke 1990eko hamarkadatik hona. Orduan asmo horrek bakearen aldeko mugimendu handi batekin egin zuten topo, nagusiki Alemanian bertan, ekialdean zein mendebaldean. Orain ordea, isiltasuna eta onarpena dira nagusi. Europako alderdi sozialdemokrata nagusiak, Olaf Scholzen SPD alderdiak, dio "beharrezko urratsa" dela AEBetako misilak ezartzea etxean. Bere gobernuko kide guztiak ere berdin mintzo dira. Herritarren gehingoari batere graziarik egiten ez badio ere, kontrako manifestazio jendetsurik ez da antolatu. Anartean, AfD ultraeskuindarrak hauteskundeak irabazi ditu Turingia eskualdean. Eta hala, Rafael Poch kazetariak ondo azpimarratu duenez, Europako jendea atxilotzen eta kriminalizatzen ari dira Palestinako bandera erakusteagatik, Gerra Hotzaren moduko krisi nuklearraren arriskuak bidea lasai ederrean egin bitartean.

Bizkitartean, Ukrainan biztanleriaren herena eta lurraldearen bosetena galdu dituzte. Errusiako mailu militarrek astiro baina gogor jotzen jarraitzen du, Donbaseko fronte zabalean apurka-apurka aurrera egingo da. Pohek jaso duenez, Mendebaldeko eta Errusiako aditu militar askok uste du Errusiako Kursk eskualdean Ukrainak abiatutako eraso "inola-ko zentzu militarrik gabeko efektu kolpea" dela, eta ziurrenik haren amaiera "hondamendia" izango dela. Hala, baliteke erasoaren zentzua EBk eta AEBek ezarritako ildo bakarrare-

kin bat ez datozen zenbait herrialde (Hungaria eta Eslovakia, kasu) errusiar energiak elikatzen dituzten gasbideak lehertzea izatea. Edonola ere, argi dago itxurazko indar-erakustaldia izan dela, Mendebaldeak gerra makineria elikatzen eta finantzatzen jarraitzeko argudioak izaten jarrai ditzan. Inoiz halakorik behar izan badu, bederen.

Gerraren mantra bakarrak beste kontu batzuk estaltzen jarraitzen du Ukrainan. Parlamentuak Eliza Ortodoxoa legez kanpo uzteko legea bideratu du. Milaka jarraitzaile badiu ere, Elizaren botere-gune nagusietakoa Moskun denez... tokirik ez Ukraina "berrian". Katolikoen Aita Santuak berak ere salatu du enegarren ilegalizazio hori. Ez baita lehena, Zelenskyren gobernuak Ukrainako hainbat alderdi eta elkarte aurretik eraman ditu eta.

Mendebaldeko komunikabide ia guztietan propaganda belikoa nagusi den arren, intsumisio aktiboa oso bizirik dago Ukrainan. Armadara batzeko adinean dauden 800.000 ukrainar "klandestinitatera pasatu dira, etxez aldatu dira eta beltzean egiten dute lan, erregistratuak ez izateko eta armadaren deia saihesteko, *The Financial Times* egunkariak zalbaldu duenez.

Gauzak horrela, bide guztiek gerrara daramate oraindik, negoziazioa are bazterrerago utzita. Europako diplomaziaren buru Josep Borrell sozialistak gatazka "gudu-zelaien konponduko dela" esaten jarraitzen du, eta, areago, Mendebaldearen irismen luzeko misilak Errusiaren aurka erabiltzea defendatu du. Baina are tristeagoa da ikustea Europako agintarien artean irtenbide diplomatiko baten alde egiten duen bakarra ultraeskuindar homofobo bat izatea: Victor Orbán lehen ministro hungariarra. ●

# “Alarde baztertzaileak okupatuak zituen espazioak partekatzen hasi beharko dira”

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

**H**ondarribiko Alarde tradizionala eta Jaizkibel konpainia desfilatzen atera dira, urtero lez, irailaren 8an. Baina orain arte EAJk gobernatu-riko udala Abotsanitzek eskuratu du eta egin dituen aldaketek hautsak harrotu dituzte Alarde tradizionalan. Uxoia Anduaga Jaizkibel konpainiako txilibitua elkarrizketatu genuen (argazkian), jai egun handiaren bezperetan.

Herrian arnasten zen giroaz galde- tuta, hala adierazi zigun: "Tentsioa bai- no gehiago, egun aztoratuak izan direla esango nuke, aldaketak daudelako, orain arte mugiezinak ziruditen gauzak mugit- zen hasiak direlako".

Dena den, Jaizkibel konpainia pare- kidea ez da atera gainerako konpainie- kin batera, beste ordutegi batean bai- zik, ohi bezala. Udal gobernu berriak ahalbideturiko aldaketa nagusiak izan dira, batetik, denok leku beretik ateraz- tea goizean, eta beraz, denok bat egitea abiapuntuan; eta bestetik, arratsaldean Jaizkibelek Kale Nagusia jaitsi ahal izat- ea ibilbide amaieran, gainerakoek egi- ten duten modu berean. "Aurrerapauso esanguratsuak dira, orain arte lortu ez ditugun bi leku oso sinboliko direlako, jaien parte garrantzitsuak".

Irailaren 8 goizean, ordea, Alarde tra- dizionaleko konpainia guztiak berandu joan ziren hasiera puntura, Jaizkibelekin

bat ez egiteko. Erabili duten argudioa: ba- tera egoteak segurtasun falta eta arriskua dakarrela. Anduagaren hitzetan, "gurekin espazioak ez partekatzeke alarde bazert- tzaileak urte luzez erabili duen argudio nagusietakoa da hori. Beti aipatu dute borrokarako arriskua egon daitekeela bi aldeak elkartuz gero, eta beste ibilbide batzuetatik bidali izan gaituzte. Zatiketa bultzatu nahi dute, baina azken urteetan espazioak partekatzea egokitu zaigunean (adibidez, entseguetan herri erdigunetik pasatzen garenean) ez da gatazkarik izat- en. Txaloak jasotzen ditugu edo bizkarra ematen digute, baina ez dago borrokarako arriskurik, eta konpainia batzuetako eta besteetako kideen artean ere ez (are gehiago, lagunak dituzte Jaizkibel kon- painiakoek beste konpainia batzuetan, ohikoa izaten da elkar agurtu eta besarkatzea). Alegia, aitzakia hutsa da, hain justu konpainia guztiak elkarren ondoan lerrokatuta gauden argazki hori saihestu nahi dutelako. Saihestu nahi dute Jaiz- kibel konpainiako kideak beste konpai- nietako lagunekin besarkatzea, musuak ematea, agurtzea... Elkarren artean ondo moldatzea badelako arazo honi aterabi- dea emateko abiapuntua. Gehiago komeni zaie honako diskurtsoa: 'Ezin gara elkartu, liskarra sortuko delako, denon onerako hobe da zatituta eta bananduta jarraitzea'".

Aldaketak aldaketa, oraindik gauza asko dagoela lortzeko eta emandakoak "bi urrats txiki" direla nabarmendu du Anduagak. Txiki edo handi, oso haserre dago Alarde tradizionalako bat baino gehiago. "Kasik ulergarria da, alarde baztertzailearekin bat egiten dutenak horretara daudelako ohituta; euren aldeko egoera mantendu da ia 30 urtez. Hortaz, atzerapauso gisa biziko dituzte aldaketa hauek, baina esperantza dugu hemendik aurrerako aldaketek norabide bera izango dutela: orain arte beraiek okupatuak eta eskuratuak zituzten espazioak, pribatizatu dituzten espazio horiek, partekatzen hasi beharko dira".

## EZ DITUZTE BI ALARDE NAHI

"Milimetroka irabazten den bide luzea da" Jaizkibelek aurretik duena, Anduaga- ren hitzetan, baina udal gobernu aldake- tarekin "askoz arinagoa" izaten ari da ha- rremana; "udal gobernu buru EAJ izan da urte luzez eta Jaizkibelentzat urterik gogorrenak horiek izan dira". Udal gober- nu berria alarde parekide eta bakarraren alde argi mintzatzea garrantzitsua derit- zto txilibitua, "izan ere, kasik urtero ate- ratzen den diskurtsoa da bi alarde egitea litzatekeela soluzioa [bata baztertzailea, bestea parekidea; Irunen egiten duten moduan], eta batzuek horretara bultzatu nahi dute Jaizkibel, baina Jaizkibelek nahi duena da gainerako konpainiekin desfila- tu, eta pixkanaka bultzatu alarde bakarra, parekidea eta publikoa bilakatu dadin".

Bestalde, Jaizkibel konpainiako kanti- nera gurgildun aulkian atera da eta hor- ren inguruan galdetu diogu Anduagari, hori ere historikoa izan da-eta. "Jaizki- bel konpainiak ez du inolako baldintza- rik jartzen kantineran rolean aritzeko, ez dago adin mugarik, ez gorputz nor- matibo baten edo generoaren gaineko mugarik, eta kasu honetan Nahia Sala- berriak beste hainbat lagunekin batera bere burua aurkeztu zuen, zozketa bidez berari egokitu zaio eta oso pozik gaude denok. Azken finean, Jaizkibelek duen aniztasunaren eta jarrera irekiaren isla ere bada". ●



RUBEN PLAZA / NOTICIAS DE GIPUZKOA

# EZ DEITU DEPORTAZIO MASIBO, DEITU MARKETIN KANPAINA ARRAZISTA

Mendebaldeko herrialde aberats gehienetan ultraeskuina etengabe eztenka ari da migratzaileekiko gorrotoa eta arrazismoa akuilatzen. Deportazio planei ekitea izan da gobernu askoren erantzuna, izan afganiarrak talibandarren eskutan uzteko, Alemania pentsatzen ari den moduan, edo Erresuma Batuan bizi diren ruandarrei ostikoa jotzeko, Rishi Sunakek nahi zuen moduan. Baina deportazio asmoetan txapeldun Donald Trump da, berak du burutazio handiena: milioika mexikar mugaz bestaldera bidaltzea. Zer dio ordea Historiak horren inguruan?

## URKO APAOLAZA AVILA

**C**ascanteko apaiza ez dago bakarrik pulpitutik jesukristorenak botatzen dituenen migratzaileen kontra. Europa osoan eta Mendebaldeko herrialde aberats ia guztietan joera antzekoa da: bizi hobea baten bila datorena kriminalizatzea eta arrazismoaren danbolinari eragitea, sutan erre daitezten zubi eta harreman guztiak.

Uda honetan Erresuma Batuan zientoka ultra ikusi ditugu komunitate musulmaneko kideak erasotzen, Southporten hiru neskatilaren ustezko hiltzaileak errefuxiatu ruandarrek zerikusia zuela zabaldu zenean. Egiaz, Tommy Robinson eta antzeko *influencer* naziek sare sozialetan zabaldutako *fake* bat zen. Ruandarrak hegazkinez deportatzeko Rishi Sunaken plana ezerezean geratu zen uztailean, torriek hauteskundeak galdu ondoren, baina X sarearen zuzia piztea nahikoa izan da Ruandako herritarrak berriz ere jomugan jartzeko.

Alemanian, Solingeneko atentatua – hiltzailea errefuxiatu siriarra da – jarri du estakuruan Olaf Scholz kantzilerrak, hitzemateko deportazioak ugarituko dituela. Oraingoz bi dozena afganiarri eman diete pasaporte, talibanek ongi-etorri beroa egin diezaieten.

Deportazioa modako hitz bihurtu da agintarien artean, eta gure mugikorretan jasotzen ditugun Googleko albiste inozoen artean sartu digute, esatera-

ko Kanarietara iristen diren *cayuco*-en harira. Albiste horiek ez digute esango 2023an 6.000 lagunetik gora hil zirela Atlantikoko bide horretan itota.

Hainbestekoa da presioa, bere burua aurrerakoitzat duen gobernu baten liderrak ere, Pedro Sánchez Espainiako presidentek, "migrazio zirkularra" sustatu nahi duela. PPko kideek gutxienez ahobizarririk gabe hitz egin dute eta deportazio masiboak eskatu dituzte –VOX imitatzeko joera suizidari jarraitzeko–, jakin arren ilegala eta giza eskubideen guztiz kontrakoa dela hori.

Baina deportazio masiboez hitz egiten txapelduna Donald Trump da. Etxe Zurirako hautagaiak beste behin erakutsi du berak duela makilarik luzeena egurra emateko: AEBetan modu irregularrean dauden 11 milioi lagun deportatzea da bere kanpainako promesa nagusietako bat. Uztailean egindako Errepublikarren Konbentzio Nazionalen berriz esan zuen "*the largest deportation in American history*" izango dela, alegia, Amerikaren historian deportaziorik handiena.

Nondik atera du ideia zoro hori? Hitzaldi horretan pista bat bota zuen: "Dwight Eisenhowerrek baino gehiago deportatu beharko dugu". 1954an, Eisenhower AEBetako presidentea zen garaian abian jarritako *Operation Wetback* (Sorbalda Bustia operazioa) du inspirazio iturri Trumpek.

Urte hartan 1.300.000 milioi migratzaile mexikar kanporatu zituzten ofizialki AEBetatik –erdeinuz "sorbalda bustiak" deitzen zieten Bravo ibaitik Texasera igerian igarotzen ziren mexikarrei-. Baina orain badakigu operazio hura terrore eta marketin kanpaina bat izan zela, eta jendea deportatzea baino, beste interes batzuk zituela. Ángel Bermúdezek sinaturiko BBCren erreportaje batean irakur dezakegu hori guztia: "Nola izan zen duela 70 urte AEBetako migratzaileen deportazio masibo handiena?", galdetzen du egileak.

## AUTODEPORTAZIOAK

1954ko maiatzean AEBetako fiskal orokorrak prentsa agerraldia deitu zuen, hegoaldeko estatuetan zeuden dokumenturik gabeko mexikarren kontrako "gera totala" hasiko zutela esanez. Handik aste batzuetara, Kalifornian eta Arizonan ehunka agente elkartu zituzten sarekadei ekiteko. Soilik lehen astean 7.000 lagun eramane zituzten autobusetan Nogales hirira, deportatuak izan zitezten. Hiru hilabeteren ostean, *Border Patrol* AEBetako mugako polizia bereziaren buru Joseph Swingen esanetan milioi bat migratzailetik gora atxilotu eta Mexikora itzularaztea lortu zuten.

Baina zifra horiek erabat puztuta daudela ziurtatu dio Kelly Lytle Hernández historialariak BBCri. Egiaz, 300.000 baino



BORDER PATROL MUSEUM / DOMEINU PUBLIKOA

**1954KO OPERATION WETBACK** edo 'Sorbalda Bustia' operazioa AEBetako "historiako deportazio handiena" izan omen zen. Baina publizitate kanpaina erraldoia ere izan zen: Mugako Patruilaren sarekada bakoitzean hedabideak joaten ziren argazki ikusgarriak ateratzera.

gehiago ez zirela izango dio, eta gehienak euren kabuz itzuli zirela: "Komunitateak ikaratzeko terrore kanpaina bat izan zen, autodeportatu zitezene". Horrela ulertzen da operazioaren berri hilabete lehenago ematea publikoki, hedabideen erabilera interesatua gakoa izan baitzen: "Prensa etengabe joaten zen mugako patruilek sarekadak egiten zituzten lekuetara (...) operazioak benetan zuena baino dimentsio handiagoa zuela irudikatzeke".

Hernándezek badaki zertaz ari den. Historialari afroamerikarrak txikitan bere haragitan bizi izan zituen antzeko egoerak, drogen kontrako borrokaren aitzakian Poliziak bera eta bere lagunak erregistratu eta jazartzen zituen garaian. Beka bat lortuta, migratzaileen kontrolaz

eta *Border Patrol*-aren historiak ikertu du Hernándezek, eta "historialari errebelde" gisa egin da ezagun mundu akademikoan.

Bere esanetan, erasoaldi horrekin lurjabeak *Bracero* izeneko programan sartzea behartu nahi zituzten. Programa horren bidez Mexikoko eskulan merkea inportatu zuten bi hamarkadaz. Izan ere, deportaturiko migratzaileak berriz itzultzen ziren AEBetara, baina programaren barruan legalizatuta.

Alegia, deportazioa bluff bat izan zela, migratzaileen lanak jarraitzen zuelako beharrezkoa izaten krisian zegoen ekonomia estatubatuarrarentzat. "Hala eta guztiz ere, *Border Patrol*-arentzat publizitate kolpe handi bat izan zen hura, eta 70 urte geroago bizirik dago 'AEBetako

deportazio handienaren' kondaira", dio Bermúdezek BBCko erreportajearen.

Baina, *Wetback* operazioak mugaren militarizazioa ekarri zuen, egun ezagutzen ditugun deportazio sarekada modernoaren hasiera ere bai, eta mexikar komunitatearen kontrako arrazakeria areagotu zuen, AEBetan migratzaileekiko jarrera gero eta gogorragoa zabaltzen ari zenean. Akaso halako zerbait nahi dute Trumpek eta Europako bere txotxongiloek?

1954ko mexikar migratzaileen kasuak erakusten digu deportazio planak, injustuak, ilegalak eta bideraezinak izateaz gain, ekonomikoki kaltegarriak direla deportatzaileentzat, baina politikoki oso probetxugarriak euren burua aurretik jartzen duten supremazistentzat. ●

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f i

# Olatz Dañobeitia

DABILEN HARRIARI



## DEIGARRIA EGITEN ZAIT EUSKAL GATAZKAREKIKO IKERKETA MAILAN DAGOEN ISILTASUNA ETA BALIABIDE FALTA



Martxoan aurkeztu zuen Olatz Dañobeitiak azken zortzi urteotan garatu duen lana, *Militantzia eta errepresio politikoaren azterketa feminista bat: 90eko Ezker Abertzaleko emakumeen kasua* tesia.

Horren aitzakian, horretan sakontzeko, bildu gara Lekeition berarekin. Akademian halako gaiak halako ikuspegi batetik lantzen dabiltzanak “funanbulistak” direla dio.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

**Ia hamar urte dira halako gaien bueltan gogoeta egiten entzun nizula lehen aldiz, 2015ean izan zen zehazki, EHko gatazkaren irakurketa etorkizuneko bake feministara bidean ikastaroan. Ordurako ikertzen ari zinen jada?**

Hor jada banekien tesia egin nahi nuela horren inguruan. Ez neukan argi iker-gaia; gehiago neukan zauri bat, ezinegon bat, kezka bat. Banekien nire bizipena ez zela bakarrik nirea, jende askorena baizik, soziologia karrera amaituta neukan, Zumalaben [Joxemi Zumalabe Fundazioa] militatzen nenbilen buru-belarri,

eta gero testuingurua zen borroka armatuaren amaierarena, horrek esan nahi duen guztiarekin. Bazegoen giro bat hitz egiteko ordura arte hitz egin ez ziren gaiei buruz.

**Nik mugarri gisa bizi izan nuen ikastaro hori.**

Ikastaro hori gogoratzen dut aupada kolektibo moduan, oso pozik eta aldi berean oso deseroso sentitu nintzen momentu batzuetan, sentitu nuen begirada feminista batzuek ez zutela ulertzen ezker abertzalearen parte izan garen edo garen emakume batzuen ez motibazioa,

ez horrek eman diguna bizitzan, ez guk nola baloratzen ditugun gauzak. Orduan, batetik sentitzen nintzen ezker abertzaleak bere buruaz egiten duen kontakizunetik kanpo eta...

**Zauria hori zen?**

Zauri bat zen hori, beste zauri bat zen Espainiako Estatuaren errepresioa, labankada erabat matxista bat parametro biolento oso gogor batzuetan; eta gero ikastaro horretan sortu zitzaidan beste zauri bat ez dena konparagarria baina bai deserosotasun inportante bat, konaturatu nintzen feminismotik ere desber-



# Olatz Dañobeitia

LEKEITIO, 1976



Soziologiako eta Haur Hezkuntzako ikasketak egin ditu, eta militantzian aritu da ezker abertzalean, mugimendu feministan eta Joxemi Zumalabe Fundazioan. Ikertzaile gisa Euskal Herriko gatazka politiko-armatua aztertu du ikuspegi feministatik, eta azkenaldian partaidetza-eta berdintasun-teknikari moduan aritu da lanean.

din begiratu daitekeela, eta hor non dago gure begirada? Nire burua ikusten nuen hainbat hutsuneren erdian, eta tesia hori da, hutsune horien erditik egindako saiakera bat.

## Zer aztertu duzu zehazki?

1990eko hamarraldi bueltan ezker abertzaleko hainbat erakundetan edo horietako batean baino gehiagotan eta ETAn, talde armatuan, parte hartzen hasi ziren emakumeen bizipenen azterketa feminista egin dut. Beraien biografiaren ibilbideari jarraitu diot: politizazio-prozesua, haurtzaroan hasten dena, konpromiso politikoa, beren partaidetza soziopolitikoak, armatua kasu batzuetan, eta horren ondorioz bizi izan dituzten gauzak, kasu askotan atxiloketa, tortura edo torturaren beldur bizitzea, espetxea, espetxe-ostea eta gaur egungo begirada.

## Elkarrizketak egin dituzu horretarako?

Hamasei elkarrizketa egin nituen baina bik atzera egin zuten ikerketan zehar, eta hori oso esanguratsua da, ikusten delako zer baldintza dauden oro har gaiak hitz egiteko, eta norberak ere zer baldintza dituen. Gero elkarrizketek gainera, emakume horien adierazpen publikoak, hitzaldiak eta abar jaso ditut.

## Zer moduz bizi izan dituzu elkarrizketak?

Elkarrizketatu gehienak ezagutzen nituen. Askotan emakume-komunitate honetan gertatzen da gai batzuei buruz asko hitz egin dugula, baina igual kartzelako patioan, ez espazio formaletan. 2016. urtearen amaieran *Hemen Gaude* manifestuarekin lehen aldiz irten ginenean publikoki, mugarririk izan zen: ordura arte espazio informaletan eta, beraz, zerbait pertsonala edo bigarren mailakoa balitz bezala hitz egindakoa eraman genuen formalitatera eta espazio publikora. Ba tesian antzekoa. Eskaini diogu gure buruari horretaz hitz egiteko tartea baina grabazio bat erdian edukita, hau da, aztertzeke, ez barrenak husteko. Gero egon dira barre pila bat, egon da negarra, egon da antsietate handia... Baina polita izan da. Ahizpa politikoen arteko kristoren elkarrizketa ederrak.

## Behin materiala bilduta, hori aztertzen jarri zara, zer ondorio

## atera dituzu? Zer nabarmenduko zenuke?

Pila bat gauza. Baina bat da, adibidez, ikusgarritasun falta: batzuetan ematen du ez garela egon, edo egon garenean edo argia ematen zaigunean, bakarrik ematen zaigula parametro jakin batzuetan.

## Zer parametrotan?

Adibidez errepresioari lotuta, igual torturaren gaian ikusgarritasuna hartu dugu baina militantziaren ekarpena aztertzeke orduan edo preso politikoen historia egiteke orduan, ez gaude hor. Beste gauza bat da emakumeek ere askotan gauza desberdinei buruz hitz egiten dugula, beste bidegurutzek batzuk izan ditugula, eta hor oso eduki interesgarria dagoela gatazkari beste leku batetik begiratzeko eta begirada feminista batetik landu ahal izateko. Hori egiten saiatu naiz baina bidea hasi besterik ez dugu egin, eta kolektiboki hitz egiten dut ze ez naiz bakarrik begirada horretatik ari dena. Esango nuke nire ekarpena dela zehaztea emakume horiek egon direla edo egon garela genero-erregimen desberdinen artean. Gatazkan, azken batean, bazegoen euskal gizartean emakumeek zeukaten tokia, ezker abertzalean emakumeek zeukaten tokia, eta estrategia-dispositibo errepresiboetan emakumea nola kokatzen zuten, bereziki Espainiako Estatuan. Orduan, emakume militanteok hor egin dugu bidea erregimen ezberdinei erantzuten, aukera horiek baliatzen, eta iruditzen zait batzuetan ez dela kontuan hartu.

## Zer sentitzen duzu epaitzen dela oso modu partzialean?

Niretzat batzuetan ez da ezberdintzen ezker abertzalea (edo estrategia politiko-militarra aurrera eraman duen mugimendua) eta gatazka politiko-armatua bera, eta gatazkan aktore gehiago daude. Gatazka batean interakzio batzuk daude eta horrek emaitza desberdinak sortzen ditu. Ba erregimenekin berdin, gatazkako parte-hartze soziopolitiko eta armatua ez da eman soilik ezker abertzalearen baldintzen arabera; estrategia errepresiboak ere marraztu du jokoelaia, eta gure gizarteko baldintzek ere bai. Orduan, horiek kontuan ez hartzeak ekarri ahal du begirada partzial eta interesatua izatea. Eta nik



uste dut inportantea dela interakzio horiei begiratzea.

**Aztertu duzun beste kontu bat: zer-nola eragin zion euskal gatazka deitu izan den horrek genero-gatazkari, eta alderantziz. Hor zer ikusi duzu?**

Esango nuke nazio-borrokak emakumeen konpromiso politikoa eta emakumeen antolakuntza erraztu eta bultzatu dituela. Euskal gatazkak politizatu egin ditu makina bat emakume, eta haien konpromisoak gerora legitimitate sozial handiagoa izatea ekarri die. Politizazioa, konpromiso politikoa eta legitimitate soziala edo autoritatea ez dira garai hartan, ezta gaur egun ere, genero-sistemak emakumei ematen dizkigun lekua eta praktika.

Errepresioari dagokionez, nabarmenduko nuke frankismoko genero-ideologia zer presente egon den Espainiako Estatuko dispositibo errepresiboetan, bai torturan eta bai espetxe politikan. Espainia deitzen den proiektu politikoan frankismoak duen gaurkotasuna oso presente ikusi dut, eta genero-dimentsio horri ez zaio erreparatzen gaur egun.

Bestalde, ni saiatu naiz biktimizazioak saihesten, uste dut idealizazioa eta biktimizazioa askotan direla polarizazio politikoaren ondorio. Hori gatazkak berez dakar eta biolentziak ere bai, baina uste dut gaingitu behar direla. Idealizazio gabe diot, baina ikuspegi feminista batetik iruditzen zait izugarria dela herri honetan emakumeen zelako ibilbideak dauden, eta

ez dira ezagutzen, ez dira aintortzen eta ez dira kontuan hartzen Pena litzateke 36ko gerran bezala gertatzea, ezta? Niri iruditzen zait ez gaudela... ez gaude beraien neurrian. Egin den ahalegina bidea irekitzeko, kontatzeko, eta horren biltze kolektiboa... erabat desorekatuta daude.

**Tesia amaituta, baduzu zabaltzeko asmorik?**

Ez dut egingo liburu bat, baina edukiak hedatu nahi ditut. Nire helburua zen gogoeta egitea, hausnarketa kritiko bat, bai ezker abertzaleak, bai herri mugimenduek, mugimendu feministak, eta jakina, ikerketa munduan dabilzanek ezagutu dezaten. Baina ez dut egingo



formatu bakar batean. Joan nahi dut pixkanaka tesiko atalak garatzen, formatu desberdinetan, hainbat kiderekin, eta beti kolektiboan. Ez dut bakarka egin nahi bide hori.



**“Beste herrialde batzuetan, gatazka osteko prozesuetan ikerketa proiektu asko egon dira, askotarikoak, eta diruz lagundutakoak. Gurean ez”**

Horretaz aparte, niretzat benetako difusioa egiten den tokia dago: deitzen didaten hitzaldi gehienetara, posible badut, joango naiz. Beti euskaraz, hemengo gure komunitateari lotuta. Niretzat inportanteena da hemen eta plaza politiko kritikoan aritzea, zeozelan esatearren.

**2024an gaude. Zer bide egin du gatazkaren azterketa feministak?**

Sentsazio gazi-gozoa dut. Ez da aurreratu gaiak behar lukeena, baina egia da jende baten eta kolektibo batzuen ahaleginari, ausardiari eta denborari esker bide bat egin dela. Tesian jaso ditut mugarri batzuk: UEUko bi ikastaro, *Hemen gaude* ekimena, emakume preso

politikoek egin genuena; Emaginek egin zuen espetxe-martxa feminista; *Hau ez da gure bakea* ikastaroak eta publikazioa; Foro Sozialeko lantalde feministaren ekimenak, *Nik sinesten dizut*, justizia feminista jardunaldiak; *Argi-izpiak txarrrantzen artean* liburua; bidean egon diren beste ikerketa batzuk... Egia da akademikoki isiltasun bat egon dela, baina isiltasun hori apurtzen ari da azpitik, akademiaren hierarkian behe-behean daudenen eskutik, ikasleen aldetik.

Lanketa badago eta pausoak eman dira; orain, niri gustatuko zitzaidekeen herri-mugimenduek beste leku bat egin izan baliote gaiari. Asko dugu egiteko, eta ni horrek apasionatzen nau; nire militantzia hor ikusten dut.

**Militatu ez ezik militantziaz gogoeta egin duzu beste kide batzuekin batera, Joxemi Zumalabe Fundazioaren barruan.**

Hor gertatu zen 2011ren ostean bat-batean militantziaren krisia deitu zitzaion hori, eta egin ziren hainbat gogoeta nola



militatu dugun, zer eredu izan dugun etab. Nik gogoia neukan eztabaidatzeko gai horri buruz. Eztabaidatu deitzen diot elkarrekin pentsatzeko modu bat iruditzen zaidalako, kultura politiko horretatik nator, gogo handia neukan kultura politikoaren gaiari eusteko, eta Zumalabek eskaini zidan aukera. Zumalabek eskaini zidan aukera nireak ez ziren familia politikoetako ezkerreko militanteekin eta feministekin militatzeko eta elkarrekin hainbat esparru birpentsatzeko, eta nik kokatzen dut hori politikoki hazi nintzen garai bezala. Gero, militantzia ereduaren harira egin genuen apur bat penduluarena: mutur batean egon zarenean joaten zara beste muturrera, eta gero aurrera jarraituta zera ikusten dut, konpromisoaren krisitoren krisia dagoela. Hor utziko dut. Konpromisoaren krisi handia dago, kolektiboaren galera handia, eta *nininis-moa* erruz sartu zaigu.

**Itxi aurretik zerbait gehiago esan nahi zenuke?**



**EKONOMIA SOZIAL  
ETA ERALDATZAILEAREN  
BIDEAN DOAZENEN  
AHOLKULARITZA**

Ametzagaina 17, behea / Donostia  
943 005 680 aholku.eus

Unibertsitateari igual kaña gutxi eman diot? Kezkatuta nago horrekin. Deigarria egiten zait ikerketa mailan euskal gatazkarekiko dagoen isiltasuna eta baliabide falta. Munduko beste herrialde batzuetan gatazka-osteko prozesuetan ikerketa-proiektu asko, askotarikoak, interdiziplinarrak eta diruz lagundutakoak egon dira eta bultzatu dira. Gurean ez. Gatazkaren ondorioen konponbide-prozesuak ikerketa premiak jota daude. Ez ditugu egoera eta ondorio asko ezagutzen.

**Unibertsitatean eta militantzian aritzeari dagokionez, ezberdinduko zenuke ikerketa bat baliagarria izatea X mugimenduentzat edo ikerketa bera izatea ekintza militante bat unibertsitatearen barruan?**

Unibertsitatearen eta militantziaren arteko leku hori problematizatu behar dugu. Uste dut badagoela sekulako abanikoa unibertsitatearen eta militantziaren arteko tokiei dagokionez, eta bakoitza leku ezberdinetan kokatzen da. Batetik, unibertsitate barruan boterea borrokatu behar da, feminista izatea da bazterrekoa, abertzalea izatea ere bai, euskararen egoera unibertsitatean badakigu zein den, joera neoliberalen eragin tamalgarria, orduan hainbat botere borrokatu egin behar dira. Hori da militantzia bat unibertsitatearen barruan egin daitekeena, jakintza sortzen eta sindikatzen, lan-baldintzak borrokatzen, ikerketa-

talde berriak sortzen... hor dago eremu oso bat.

Beste zeregin bat da ikerketak egitea mugimendu politikoentzat edo herri-mugimenduentzat. Beste aukera bat da militatzea unibertsitatekanpo, beti egin den bezala, kolektibo batean, eta lanbidea izatea unibertsitatean, beraz, burua bi tokietan izatea. Eredu asko daude, baina horiek guztiak aurrera eramateko baldintzak ez dira berdinak, eta batzuetan iruditzen zait zorrotzago ibili behar dugula unibertsitatearen eta militantziaren arteko toki horretaz



**“Igal torturaren gaian ikusgarritasuna hartu dugu baina militantziaren ekarpena aztertzeke orduan edo preso politikoen historia egiteke orduan, ez gaude”**

ari garenean. Adibidez, unibertsitateak izugarri diziplinatzuten zaitu, denbora-ohiturak, harreman-ohiturak aldatzen dizkizu, eta oso zaila da hankak lurtean mantentzea, denbora izatea militatzeko, denbora izatea uni-tik kanpoko harremanak kalitatez lantzeko.

**Azken hitza: Likenik gabe bakerik ez.** Tesian, ezker abertzaleko emakume errepresaliatuen irudi bezala erabili ditut likenak: normalean taldean egoten dira, sinbiosi-prozesuen emaitza dira –alga, onddo–, ez dira ikusgarriak baina likenik gabe ez dago zuhaitzik, haien ekarpena ezinbestekoa da baina itzal egiten die beste hainbatek. Horren harira, barre artean lema bat atera genuen: *Likenik gabe bakerik ez*, eta iruditzen zait tesiko esentzia-espirtua hori dela: nolabait hor daude likenak eta erreparatu behar zaie, ezin dira ezabatu, ezin dira isildu, eta horiek gabe bide bat egitea galera bat da, argi eta garbi. ●



## Udako uzta

**E**san ohi da uda sasoia parentesia dela politikan. Agian politikaren ikuspegi instituzional hutsa duenak pentsatuko du horrela, baina oraindik ere amaitzear den aurtengo udak eman digu zer aztertu.

Uda sasoia hasteko zela osatu zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako autonomia erkidegoan Jaurlaritza, EAJk erabaki moduan, PSE-PSOE gobernukide hartuta, helburu nagusi batekin: EH Bildu geldiarazi, gobernu lanetatik urrundu, balizko aliantza estrategikoetatik apartatu. Imanol Pradalesen izendapenak ez du ezer aldatu EAJren aspaldiko norabidea. EAJk nahiago du, estatu espainiarrean gobernatzen duen PSOEn babespean, EAeko autonomia bere alderdiaren probetxurako kudeatu, Euskal Herriari begirako euskal naziogintza garatzeko strategiari bideak zabaltzea baino.

Uda betean gertatu da Katalunian euskaldunoi zuzenean eragiten digun beste gertaera esanguratsua: ERC alderdiak PSC-PSOE babestu zuen Generalitateko presidentetzarako bidean, eta ondorioz, Salvador Illa espainiarzale sutsua eta Kataluniako independentziarako bide demokratikoaren ukatzailea jarri zuen *president*. Hori gertatu zen egun berean, abuztuaren 8an, Carles Puigdemont *president*-a ere atzerritik etxera itzuli eta agertu zen Bartzelonan, *Parlament*-eko saioan parte hartzeko asmoz. Indarrez galarazi zioten eta atzerrirako bidea hartu behar izan zuen berriz ere.

Kontuak kontu, ERCren posizioa era-

Espainiako zein Frantziako ezker sozialdemokrata “progresista” deituak suertatzen dira Euskal Herriaren eta nazio zapalduen desnazionalizaziorako tresnarik indartsuenak

bat konprometitu agertzen da, bai Katalunian bai Euskal Herrian, independentziarako bide demokratikoak ireki nahi ditugun guztion aurrean. Baina hara non EH Bilduk, zergatik argi ez dagoela, erabaki zuen ERC dela haren aliatu estrategikoa, eta horrek EH Bildu bera ere zeharka konprometitu egiten du independentziazaleen begietara. Agian horregatik esplikazioak ematen saiatu ziren handik egun gutxitara iritzi-artikulu luze eta mamitsu batean ezker abertzaleko bi arduradun ezagun, bigarren errepublika espainiarrari ateki ireki zizkion Donostiako Itun ezaguna gogora ekarrita, 1929 hartako abuztuaren 17an gauzatua, hain zuzen. Esanguratsua oso aipatu artikuluan defendatzen duten proposamena: estatu espainiar osoarentzako errepublika federala, ho-

rretarako ezker espainiarra eta ezker eta progresismo euskalduna bat eginda. Independentziaren helburutik nabarmen desbideratzen eta urruntzen den proposamena, beraz.

Bistan da Euskal Herrian zein Katalunian, alderdi abertzale instituzionalak, beren dinamika instituzional propioan murgilduta, estatu espainiarrean gero eta integratuago agertzen direla. Dela eskuin muturraren gorakada Espainian zein Frantzian geldiarazteko helburua lehenetsiz, dela gobernarritasuna argudiatuz, baina praktikan, azterketa zorrotz batzuetan salatu den bezala, Espainiako zein Frantziako ezker sozialdemokrata “progresista” deituak suertatzen dira Euskal Herriaren eta nazio zapalduen desnazionalizaziorako tresnarik indartsuenak. Horra hor uda hone-tan ikasi dugun zerbait.

Beste norabidea, oso bestelako estrategia, behar dugu, bistan denez. Horretarako bideak ere zabaltzen ari dira, eta gizarte zibiletik zein hainbat herri-erakundetatik ikusi ditugu urrats berriak. Bilboko Aste Nagusian, Itziar Ituñoren pregoi eredugarria euskara hutsean eta horren ondorio pizgarriak. Ehun mugimenduaren Euskal Errepublikaren aldeko urrats praktikoak, Plentziakoa aitzindari. Naziogintza elkartearen herri euskaldunentzako proposamenak. Eta abuztuaren 3an eta 4an Auritzen eta irailaren 8an Garazin Euskal Herriko estatu propioa zehazteko bide irekiak. Uda ez da oraindik amaitu. ●



KARMELO LANDA  
HISTORIALARIA

# Hezkuntza sailburuari gutun irekia (eta II)



**TERE MALDONADO**  
FILOSOFIA IRAKASLEA

**A**ndere agurgarria: Zer moduz uda? Ondo espero dut. Oraingo honetan, harira joango naiz, zure baimenarekin.

Dakizunez, merkatu ultra-liberalenen berezko lehia-logikan sartuta, ikastetxeek era guztietako "proiektuak" abiarazi behar dituzte. Jakin behar duzu horietako askok ez dutela laguntzen aldarrikatutako helburuak lortzen (bizikidetzatza, berdintasuna...), berniz kosmetiko huts bihurtuta. Helburuok lortuko lirerateko askoz errazago gure lan-baldintzak benetan hobetuko balira.

Egoera kaskar askok okerrera egin dute azken urteotan, adibidez:

- Ikasturteko edozein unetan, erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako bat (edo bat ere ez) hitz egiten ez duten ikasleak iristen zaizkigu eta oso laguntza gutxirekin (ordu-kopuruei eta langileei dagokionez) sartu behar ditugu ikasgelan. Ikasle horien hezkuntzarako eskubidea urratzen da, ez ikastetxearen erruz (ahal duen guztia egiten baitu), baizik eta Hezkuntza Sailak behar beste baliabide jartzen ez duelako.

- Premia bereziak dituzten ikasleen kopurua. Ikasle horiek egokitzapenak behar dituzte, hots, materialak, edukiak, prozedurak eta abar ikasle bakoitzaren premia zehatzetara egokitzen dituzten elabora-

zio espezifikoak. Horrelako egokitzapenek irakasleari askotan eskatzen diote ez daukan prestakuntza, eta material ugari arretaz irakurtzea, non argibideak eta aholku orokorrak ematen diren nola jokatu jakiteko; familiarekin eta ikastetxeko orientatzailearekin *ad hoc* bilerak egitea; ikaslea psikologora badoa, horrekin harremanetan ipintzea, eta abar.

- Protokolo jakinak behar dituzten ikasleak (suizidio- edo jazarpen-arriskuagatik, adibidez). Protokolo horiek ezartzea bateraezina izan daiteke beste ataza saihestezinekin, kopurua nabarmen handitu delako.

- Ikasleen elikagai-intolerantziak eta -alergiak. Arazoren bat suertatuz gero, jarduketa zehatzak eta berehalakoak jarri behar ditu abian irakasleak ikasgelan edo zaintzan dagoela. Baina baliteke uneoro kontrolpean egon behar diren ikasleei arreta ematen egotea (aurreko puntuan aipatuak), behin baino gehiagotan gertatu izan denez.

- Disrupzioak, bizikidetzatza-gatazkak, errespetu faltak eta erasoak. Gaia oso larria da, gure lanetik haratago doa eta berezko hausnarketa sakona beharko luke. Zer esanik ez, lan-gainkarga, frustrazioa eta estresa sortzen dituen beste iturri bat da guretzat. Hori konpontzeko derrigorrezkoa da ikastetxeetan langile espezia-


lizatu gehiago ipintzea eta, beste behin ere, irakasleonek zama arintzea.

Horrez gain, egungo gizarte-inguruarrek nerabeak eta gazteak infantilizatzeke eta gehiegi babesteko joera dakarte. Ikasleek askotan lan egiteko ohitura finkaturik ez edukitzeak (batzuetan patologia psikologikoa eragin dezakete, baina gurasoen eta irakasleen autoritatearen gainbeheraren ondorio dena, besteak beste) eskatzen du irakasleen eta familien arteko harremanek maiztasun gutxienekoa izatea. Kalitatezko denbora eta espazioak behar ditugu erantzun egokia eta koordinatua emateko.

Horren guztiaren ondorioz, *burntout* sindromea gero eta ohikoagoa da gure artean. Hezkuntza-administrazioaren tratu-tzarrek -telefonoa hartu ere egiten ez diguna ("bunkerizazioa" esaten zaion fenomeno)- amaiera bikaina ipintzen diote gure atazari, eta atsekabe eta sufrimendu handia eransten dizkigute. Baldintza horietan, ezinegon fisikoa, psikikoa eta emozionala ez dira harritzekoak, eta ezinbestean gure lanaren kalitatea okertzea eragingo dute.

Bukatu behar dut. Ea ikasturte honetan hasten garen arazoak konpontzen, *auzolana* ikurpean.

Horrela izango delakoan, jaso nire agurrik beroena. ●



DOM CAMPISTRON

## Erantzun konplexuen alde



MAIALEN ARTEAGA  
KAZETARIA

**G**arai hiper azeleratu eta likido haue-  
tan erantzun sendoek heldulekuak  
eskaintzen dizkigute. Erraza da kri-  
si garaietan halako premisa bati heldu  
eta zure egitea, bandera altxatzeraino.  
Inguruan gertatzen ari den guztia uler-  
tzeko erantzunak behar dituzu, erantzun  
azkarrak; eta horrek, sarritan, errudunak  
inguruan bilatzera garamatza. Gora begi-  
ratu beharrean analisia buruaren errota-  
zioak baimentzen duen 180 gradueta  
mugatzten duzunean, bukatzen duzu es-  
kuinak behin eta berriz errepikatu duena  
zure ahotsetik esaten (literalki esaten ez  
bada ere, iradokitzen). Ideia batzuk erraz  
sartzen dira gure buruetan eta oraindik  
errazago aurkitzen dute erroldatzeko  
leku bat gure baitan. Bat-batean, justizia,  
borroka, askatasuna, eskubideak, alda-  
keta, herria... eta ezkerreko mugimendu  
eraldatzailearen hiztegia osatzen duten  
hitz potoloek eskuinaren agenda bete-  
tzen dute. Nekez izango du, ordea, aska-  
tasunak, justiziak edo herriak esanahi  
bera kontrakoa nahi dutenen ezpainetan.  
Izenak ez dakar beti izana. Ustekabean,  
gehiengoaren defentsan ari garelakoan  
gutxi batzuen betaurrekoetatik ariko  
gara mundua (edo buru bueltaren 180  
graduak) irakurtzen.

Zurrumbilo horretan, ez da berria eus-

kaldunak pribilegiadunak garela dioen  
diskurtsoa. Ez da berria, baina haize har-  
ro batekin ari dira orain plaza digitale-  
tan. Euskara burgesiaren hizkuntza dela  
ere irakurri behar izan dugu azken egu-  
notan. Ustez, klase ikuspegiaren babes-  
pean egiten diren hainbat analisis beste  
hainbat ertz ahaztera eraman ditu ba-  
tzuk. Begi batean partxe bat jarrita ikus-  
ten denari ezin zaio analisi edo kritika  
deitu, ikusiko dugun hori osoa ez delako,  
eta ikusten dugun horretatik interpreta-  
tzen dugun errealtatea kamutsa izango  
delako. Klase ikuspegitik baino gehia-  
go, pribilegioen mehatxuen lurrikararik  
eginda daudela esango nuke. Kritika hori-  
rietan zu, zure herrian zure hizkuntzan  
bizitzea ezinezko zaizun hori, orain, zure  
hizkuntzan bizi nahi izate hutsagatik  
pribilegiaduna omen zara. Kontuz! Zure  
euskaltzaleatasunari *burgeskaria* omen  
dario. Zapalduen dominak pilatzea hel-  
buru duen lehiaketa gisa erabiltzen dute  
zenbaitzuek interseksionalitatea. Niri ez  
dit feminismoak hori erakutsi. Erakutsi  
dit, batzuetan errealtate konplexuak  
galdera eta erantzun konplexuekin bai-  
zik ezin direla irakurri. Erantzun kon-  
plexuek ez dute lekua horren erraz aur-  
kitzen gure baitan, baina 360 graduako  
ikuspegiak gehiago fio naiz. Merezi du. ●

## Eskua altxatzeko artea



EDU ZELAIETA ANTA  
IRAKASLEA ETA  
IDAZLEA

**I**kasle asiriar eta babiloniarrek ez zu-  
ten ezagutzen eskua altxatzeko artea.  
Mendeak igaro behar izan ziren, bai  
eta beharbada milurtekoren bat ere,  
Egiptoko eskola bateko ikasle batek,  
zerbait galdetu nahi baitzuen, eskua al-  
txatzeko artean saiatzeko: azalpen bat  
ematen ari zen maisua eta, nonbait ere  
egia horren inguruko zalantza sortzen  
hasita, eskua altxatzeko bulkada sumatu  
zuen ikasle hark.

Galdera egiteko keinu xelebrea iku-  
sita, asaldaturik begiratu omen zioten  
gainerakoek. Haren jakin-min naturala-  
rekin eragindako eskandalu giroaz lo-  
tsatu zen egiptoar txiki hura, eta altxa-

tua zuen eskuarekin, zer egin ez zekiela,  
burua hazkatu zuen azkenean. Egia da  
ikasle hura ez zela ailegatu deus ere gal-  
detzera, baina eskua altxatzeko artearen  
lehen urratsa eman zuen. Urratua zen  
bidea.

Halatsu kontatu zuen Gianni Rodarik  
ipuin baten hasieran. Zalantzaren alde.  
Jakin-minaren alde. Solasaren alde. Eta  
ipuin hori irakurrita bezala egin dizki-  
zute galderak, ikasturte berriaren ha-  
sieran: Non kudeatu dute ongi (kultura)  
aniztasuna? Zein gizartetan lortu dute  
(kultura) aniztasuna gatazka-iturri ez  
izatea?

Rentrée on. ●

# Baserritarren oporrak



**KIMETZ ARANA BUTROE**  
BARATZEZAINA

**B**aserritarrek badute oporrik? Galde-tu dute eskolan. Ezezkoa erantzun dute ikasleek. Orduan, egunero lanean, baserritar izan nahiko zenukete etorkizunean? Eta inork baserritarra izan nahi ez badu, nork egingo du guretzako janaria? Airean gelditu da galdera.

Pertsonaren osasun eta ongizaterako beharrezkoa da norbere gustu eta interesak garatzeko denbora izatea, egunerokotasunetik deskonektatu eta atsederako tartea edukitzea. Gainera, Euskal Herria oso toki industrializatua da, baserriko pentsamendu eta harreman sarea txikia da eta baserritarra bizimodu hiritarrean bizi da. Bertan aisialdiak, oporrek zein bidaiatzeak garrantzi handia dute.

Baserrian gaur egun oporrak hartzeko aukera bat da pertsona batek baino gehiagok lan egitea, langileek baserriko hainbat arlotan moldatzen jakitea eta lan egutegia guztion artean adostea. Beste aukera, berriz, oporretarako ordezkapen zerbitzua baliatu eta baserriko lanak epe laburrean egiteko konfiantzazko langile bat bilatzea da.

Bigarren horretan aritu naiz, Gipuzkoako Goierriko baserri batean langile, azken hiru urteetako abuztuetan. Aspalditik egin izan ditut sasoiko lanak,

Baserri txikiek ganadu-landare hazkuntza eta elikagaien transformazioan ezagutza duten langileak behar dituzte, lan eta ordezkapeneterako

traktorezaleentzat fardo biltzaile, artzaientzat bildots jaiotzean, ardi-moztaileekin ardi harrapari eta abar. Gustuko dut mugitzea, inguru, molde eta familia desberdinak ezagutzea, lanak bukatu eta bere ordaina jasotzea. Asko ikusi eta ikasi dut horrela.

Sasoiko lanekin alderatuta, ordea, ordezkapen zerbitzuak baditu berezitasunak:

- Baserriko familia eta langileekin harremana sendo eta estuagoa da sasoiko lanetan baino.

- Egokitzapen gaitasun azkarra eskatzen du, baserriko funtzionamendua eta lanak ulertzea bertako martxan berehala hasteko.

- Lan desberdinak egiteko prest egon behar da.

- Ardura handia sortzen du eta akatsik ez egiteko tentsio puntua ere.

Nekazari eskoletatik datozen gazteentzat ordezkapen zerbitzuak interesgarriak izan daitezke baserriko lan desberdinetan trebatzeko, intereseko arloan sakontzeko (gaztagintza, baratze-gintza, artzaintza...) eta martxa desberdinak ezagutzeko ikuspegia zabalteko.

Baserri txikiek, ordea, ganadu-landare hazkuntza eta elikagaien transformazioan ezagutza duten langileak behar dituzte, lan eta ordezkapeneterako. Ez da erraza bi ezagutzak dituzten pertsonak bilatzea.

Horretarako, iparralde hegoalde, Euskal Herriko nekazaritza ikasle, eskola, langile eta nagusiak lotuko litzuzkeen zerbitzu bat beharko genuke. Langile-nagusien harremana erraztu eta mugikortasuna bultzatuko lukeena. Baserrietako beharrei erantzuteko eta langileei aukera gehiago emateko. ●

FINAL-ZORTZIRENAK

**URRETXU**

Irailak 14, larunbata, 17:00

Labeaga antzokia

[www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa](http://www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa)  
[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)

**LASARTE-ORIA**

Irailak 15, igandea, 17:00

Manuel Lekuona kultur etxea

**GBT24**

GIPUZKOAKO  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA  
2024



# Adarbakarrak

## Amets Aznarezekin

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)



## LAB-ek 50 urte bete ditu

# Ezker abertzaleko baso hartatik, arbola bakarra zutik

1970eko hamarkadaren erdialdean sigla dantza itzela zegoen euskal panorama soziopolitikoan, eta horien artean mordoxka bat ezker abertzalekoak. Mende erdi geroago, denboraren higaduraren edo errepresioaren ondorioz, horietako gehien-gehienak desagertuta daude, arbola bakarra geratzen da zutik itsas hegi honetan: LAB sindikatua.

 XABIER LETONA BITERI

**1**974an sortu ziren Comisiones Obreras Abertzales izenekoak, ordurako ospetsu eta indartsu ziren Comisiones Obrerasen moldera, baina izaera abertzalearekin. Urte horretan bertan, udazkenean, horietako hainbat taldek topo egin eta LAB sortu zuten, Langile Abertzaleen Batzordeak. 1975eko otsailaren bueltan egin zuten lehen Biltzar Nazionala Miarriz eta sindikatuak bidaiari ekin zion langile mugimendua bor-bor zegoenean. Francoren diktadura bere amaieran zegoen eta, besteak beste, ETA barruko *mili* eta *poli-milien* arteko tira-birak gori-gori ziren eta LABen ere gogotik nozitu zituzten. Edozein kasutan, aurrera egin zuen, orduko giro sindikal iraultzailean nazio arazoa ere lantegietara ekarrita eta izaera sindikal hutsari izaera soziopolitiko gaineratuta; hala definitu zuen bere burua duela 50 urte eta horretan jarraitzen du gaur egun.

70eko hamarkadakoak urte gogorrak izan ziren LABentzat, besteak beste, barne tira-birengatik. 1977an Moncloako Ituna sinatu zen Espainian, eta horrek

horma gisako bat altxatu zuen erreforma arbuia eta onartzen zuten sindikatuen artean. Ezker abertzalean Herri Batasunak eta Euskadiko Ezkerrak irudikatu zituzten bi bide horiek, eta zatiketa horrek izan zuen eraginik oraindik bi sektoreak elkarrekin aritzen ziren LABen. Horrela, 1980ko LABeko II. Kongresuan, Euskadiko Ezkerrako sektoreak ELAra jo zuen.

Urte gogorrak ziren maila guztietan. Nazioarte mailan neoliberalismoa haginak zorrotzen ari zen erasoari ekiteko. 1973ko petrolioaren krisia munduko ekonomia astintzen ari zen eta Euskal Herria ez zen salbuespena. Trantsizioa eman zen Espainian. ETAko bi adarren jardun armatua oso gogorra zen. 1980ko hamarkadaren hastapenetan Gernikako Estatutua eta Nafarroako Foru Hobekuntza oinez hasi ziren. 1981eko otsailaren 23an estatu kolpe saiakera ere izan zen Espainian. Eta 1982an PSOE Espainiako Gobernura iritsi zen eta birmoldaketa industrial zorrotzari ekin zion.

Moncloako Ituna hasi zen panorama instituzional berria finkatzen eta 1990eko hamarkadara arteko euskal



LABeko II. Kongresua Donostian, 1980an. Horretan Euskadiko Ezkerrako sektorea ELAra joan zen.

eredu sindikala zehaztu zen apurka: batetik, eskema instituzionalaren bueltan egituratu ziren UGT, CCOO eta ELA; eta bestetik, LAB, CNT, SU, CSUT... eta gerora desagertu ziren beste zenbait sindikatu txiki. Rafa Diez LABeko buruzagi historikoak berba hauekin laburbildu zituen multzoak gerora: “kudeaketa sindikal-gintza” eta “konfrontazio sindikal-gintza”.

### INDARRA HARTZEN

1980an egindako ezohiko kongresuan, LABek gehiengo handiz erabaki zuen Koordinadora Abertzale Sozialistan (KAS) sartzea, ordurako jada erreformaren kontrako euskal ezetza gidatzen zuten erakundea: Konstituzioari ez, Gernikako Estatutua eta Foru Hobekuntzari ere ez,





LOUBET / ARGIA CC BY-SA

ezta Moncloako Itunari ere. Jon Idigoras, Joselu Cereceda edota Alberto Pelaez ziren sindikatuan nabarmentzen ari ziren izenetakoak. Lehenbiziko urteak oraindik xumeak izan ziren ordezkari eta afiliatuei dagokienez, baina agudo samar handitu zen: 1980ko hauteskundeetan 785 ordezkari (%4,53) lortu zituen Hego Euskal Herrian eta 1986an 1.876 zituen jada (%17,26).

Ezker abertzaleko gainerako indarrak moduan –bereziki Herri Batasuna– LAB biziki hazi zen urte horietan, eta hamarraldiaren bigarren erdian ETA Espainiako Gobernuarekin negoziatzera iritsi zen Aljerren. Panorama ekonomiko-soziala, ostera, oso gogorra zen Euskal Herrian eta langabezia tasak %23a gainditu zuen

1986an. PSOEak akuilatuta, birmoldaketa industrialak gupidagabe erortzen ziren langileen bizkar eta horien erresistentzia ere ez zen nolana hiko: Euskaldunako Ontzioletako borrokak garai horretako langile borroken sinbolo bihurtu ziren. Intentsitate desberdinarekin bada ere, herrialde garatuetako egoera antzerakoa zen, eta gerora neoliberalismo gisa izendatu zen horrek paretaren kontra jarri zituen ezkerreko alderdiak, sindikatuak eta, oro har, langile mugimendu osoa. Molde berri bateko kapitalismoaren hasiera besterik ez zen izango, haren haginkadak bere horretan mantendu baitira hurrengo hamarkadetan ere, gaur egun arte.

Egoera horren erantzun gisa, 1988ko abenduaren 11n greba orokorra egin

zen: “Espainiako historia garaikidean seguruenik inoiz ez da horren greba arrakastatsurik izan”, zehazten du Emilio Majuelo historialari nafarrak *Historia del sindicato LAB. Langile Abertzaleen Batzordeak (1975-2000)* liburuan. Seguruenik, Majuelorena da LABen historia zehazten aztertzen duen lana, eta erreportaje hau gauzatzeko tresna garrantzitsua izan da. LABeko kide Joserra Bustillo kazetariaren lanak eman zion segida Majuelorenari, *LAB sindikatuaren historia II. Hator gorrira! (2000-2005)* eta hau ere baliagarria izan zaigu.

LABen bidelagun izango zen sindikatu txiki baten sorrera ere izan zen 1985ean, ezker abertzaletik harago antolatutako euskal ezker alternatiboaren bueltan sor-

tua, ESK, gaur egun ere aktibo jarraitzen duena. Hitzarmen kolektiboaren bueltan, halaber, Majueloren iritziz hamarraldia- ren amaiera aldera, edukie zegokionean LAB hurbildu zen ELA, UGT eta CCOO k zuten ikuspegira, baina desberdintasuna hitzarmenak defenditzeko moldeetan zegoen. Apurka baldintzak sortzen ari ziren, 1990eko hamarraldian euskal sindikalgintzan giltzarri izan zen gertararako: ELA eta LABen arteko elkarlana.

## PARADIGMA ALDAKETA EUSKAL SINDIKALGINTZAN

Euskal Herrian bizi zen gatazka bortitzaren bi esparruetan kokatzen ziren orduan bi sindikatu abertzaleak: ETaren aurkako esparru zabalean ELA, eta Euskal Nazio Aspakenaren Mugimenduaren baitan LAB. Ajuria Eneko Itunak, gainera, lortu zuen ezker abertzalea ordura arte ez bezala zokoratzea, eta bi blokeen arteko aurrez aurreko oso indartsua gertatu zen. Bada, ELA eta LABen arteko jardue- ra bateratua izan zen garai hartan ezker abertzalea isolatzeko ahaleginaren arrakalarik esanguratsuenak.

Hainbat faktorek erraztu zuten elkarlan hori, eta inportanteenetako bat 1988ko ELAko VII. Kongresuan eman zen, non Joxe Elorrietak Alfonso Etxebarria ordezkatu zuen idazkaritza nagusian eta ELA gaurdaino ekarri duen aldaketa handiaren hasiera irudikatu zen. Urte luzez ELAko komunikazio arduradun izan zen German Kortabarriaren *Gauzak horrela (ere)* izan ziren. ELA 1976-2006 liburuan "ELAren Perestroika" –Balentin Bengoa militante historikoaren hitzak

Joxerra Bustillo kazetariak ere hala ikusi zuen 1999ko une hura: "Garai hartako gertakari politikoek ezkutatu egin zuten ELAren asmoa: LAB bereganatzea"

ziren– gisa izendatzen da une hura.

Bidea apurka egin zen, ordea, bi sindikatuak urruti zeuden elkarrengandik. 1991n ELAko *2000rako sindikalismoa* txostena egin zuen eta hor argi ikusten da ELAko LABekiko zuen begirada uzkurra: "Zorrotz hartuz gero, erakunde hau ez da sindikatu bat, KAS alternatibaren lantegietarako transmisio-uhala baizik". Eta gerora urte luzez LABek ELArekiko izango duen mesfidantzarako arrazoirik ere aurki daiteke txostenean, balizko euskal sindikatu abertzale bakarraz hausnartzen baita lerro haietan: "Edozein sindikalista abertzalerentzat erakunde bakarra eduki ahal izateak izango lukeen garrantziaz hausnartzera ausartzen da agiria", dio Kortabarriak bere liburuan. Gerorako ikusiko dugun moduan, hamarkadaren amaieran argi ikusiko da mesfidantza hori zein indarrez azalera- tuko den.

## 1994KO OTSAIL GILTZARRI HURA

1990eko hasieran mugimendu berriak izan ziren eta une batez ELA, LAB eta

CCOO ekintza bateratuan aritu ziren. 1992an Rafa Diez LABeko idazkari nagusi izendatu zuten eta Joxe Elorrieta- rekin batera bi sindikatuen hurrengo urteetako elkarlanaren ikur bihurtu zen bikotea. 1994ko urte berean eman zen jarduera batu horren une esanguratsue- nekoa, otsailaren 19an bi sindikatuek manifestazio bateratua deitu zutenean *Euskal langileok geure buruaren jabe* goi- burupean. Bi idazkari nagusientzat "egun historikoa" izan zen. Ez da nolanahikoa 2015ean Ipar Hegoa Fundazioko *Ikus- mira* agerkarian Rafa Diezek urte hortaz egiten duen irakurketa: "Urte hori euskal sindikalismoaren atzera begirako atzer- keta guztien inflexio-puntua da".

1998an sinatu zen Lizarra-Garaziko Itunerako lan garrantzitsutzat hartu izan da beti bi sindikatuen arteko elkarlana, ilusio handia eragin zuen euskal gizarte- ko esparru zabaletan, eta gaurdaino no- la-hala luzatu den "euskal gehiengo" sin- dikalaren aroa –ELA, LAB, ESK, Steilas, EHNE eta Hiru– ireki zuen. 1994-95eko hauteskunde sindikaletan ELAko ordezkari- tza %35,27 lortu zuen Hego Euskal Herrian eta LABek %14,56, bien artean %49,83. Arrazoi askorengatik ELA aspaldi konturatu zen UGT eta CCOOekin ezin zuela aurrera eraman bere eredu sin- dikala. Hala aitortzen du Kortabarriak: "Bere nagusitasun sindikala eraginkorra izan zedin LABen premia zuen ELAko". 1995ean LABek beste mugarri garrantzi- tsu bat zeharkatu zuen: ordezkari- tza %15etik gora egin zuen eta horrek nego- ziazio sozialaren eremu instituzionalean parte hartzeko aukera ematen zion, non



Ezkerrean Iruñeko Gazteluko Plazako mobilizazio bat eta eskuinean Maiatzaren Leheneko bazkari batean. / ARGAZKIAK: LAB



Ezkerrean euskal esparru burujabatean aldeko mobilizazio batean, eta eskuinean, zaintza eredu berrien aldarrikapenean. / ARGAZKIAK: LAB

aurrerantzean ELAk eta LABek gehien-  
goa izango zuten. Harreman horren une  
gorenetakoa izan zen 1999ko maiatzean  
35 orduen alde Hego Euskal Herrian el-  
karrekin bultzatu zuten greba orokorra.

### MALLABIKO BILERA

Hondatze bidean zegoen harremanean  
aurrera egiteko bi sindikatuak bilera egin  
zuten Mallabian 1999ko ekainean, ETA-  
ren su-etena oraindik indarrean zela. Bi-  
lera hartan egon zen Kortabarriak bere  
liburuan kontatzen duenez, elkarlanean  
beste urrats sakon bat emateko propo-  
samena luzatu zion ELAk LABi: “Bi sindi-  
katuek erdibana kudeatuko zuten funda-  
zio baten sorrera; Ipar Euskal Herrirako  
planteamendu sindikal posible baten az-  
terketa elkarrekin egitea; eta koordina-  
ziorako egitura iraunkorra ematea ELA,  
LAB eta beraiekin elkarlanean ari ziren  
beste sindikatuaren arteko harremanari”.  
Erresistentzia kutxa bakar eta bateratua-  
ren aukera ere mahaiaren gainean utzi  
zuen. LABeko ordezkarien “txundimenak  
goia jo zuten”, dio Kortabarriak.

LABek hurrengo egunetan eman zion  
ezezko borobila proposamenari, eta  
“LAB irensteko EEP (erosteko eskaintza  
publikoa)” moduan hartu zuten. Joserra  
Bustillok bere liburuan azaltzen duenez,  
Rafa Diezek esan zuten “LABek elkar-  
lanari egindako erasotzat hartu zuela  
planteamendu hori”. Eta Bustillok ere  
hala ikusi zuten: “Garai hartako gertakari  
politikoez ezkutatu egin zuten ELAren  
asmoa: LAB bereganatzea”.

Edozein modutan, bi sindikatuaren ar-  
teko elkarlan hori eraginkorra izan zen  
aurrera begira ere, baina haien harre-  
mana errusiar-mendi bat izan da azken  
hiru hamarkadetan, elkarrekiko mes-  
fidantza beti airean, orain ekintza ba-  
tasuna gauzatu orain elkarren arteko

Mende hasierako 35 orduko  
lanaldi aldarrikapena 30  
ordukoa bihurtu da gaur  
egun, desazkundearen gai  
konplexuari nolabaiteko irudia  
emateagatik

oso akusazio gogorak elkar gurutzatuz.  
Diezek hala idatzi zuten 2015eko *Ikus-  
mira* hartan harremanaren garrantziaz:  
“Ausardiaz eta dimentsio estrategikoz  
begiratu behar diogu sindikalismo aber-  
tzearen lankidetzari. Posible da, baha-  
rezkoa da, baina, gainera, ez du alterna-  
tiberik aurrez aurre ditugun erronken  
tamaina ikusita”. 2017an egin zuten el-  
karlanari forma emateko azken ahalegi-  
na, *Aldebakarreko burujabetza prozesu  
sozial baten alde* adierazpen bateratua  
aurkeztuta, Kataluniako erreferendu-  
maren testuinguruan. Ika-mikek, aldiz,  
berehala utzi zuten ezerezean ahalegina.

### EGOKITU BEHARRA

XX. mendeko lehen hamarkadan ezker  
abertzaleko legez kanporatzearen aroa  
ireki zen. Ez zuten LAB harrapatu, bai-  
na salaketa han akusazioa hemen, sin-  
dikatu ere estu hartu zuten. Horren  
erakusle da 2009an Rafa Diez atxilotu  
zuela Espainiako Poliziak, eta 2017ra  
arteko tartean sei urte espetxean ira-  
gan behar izan zuela *Bateragune auzia-  
n* ETako kide izatea leporatuta. Diez ez  
zen jada LABeko idazkari nagusi, baina  
oraindik sindikatuaren pertsona erre-  
ferentziala zen.

Egoera horrek bere ifrentzua ere izan  
zuen, ezker abertzalearen ataka estu  
horretan LAB mugimenduko legezko  
erreferentzia garrantzitsuena moduan  
geratu baitzen, eta bere ekarpena han-  
dia izan zen ETAk 2011n borroka arma-  
tua alboratzeko bidean. Mende berrian,  
gainera, bere indarra handitzen jarraitu  
zuen: 2005ean ordezkariak sindikala-  
ren %15,11 zuten eta 37. 812 afiliatu.  
2024ra arte jarraitu du hazkunde ho-  
rrek: 2023ko hauteskunde sindikaletan  
Hego Euskal Herriko ordezkariaren  
%19,60ra iritsi zen eta 2024ko 50. ur-  
teurrenara 50.000 afiliatuko langa gain-  
dituta sartu da.

Neogoziazio kolektiboari begira 2000.  
hamarkadako lehen urteetan izan ziren  
ezohiko mugimenduak euskal sindikal-  
gintzan. Hala, 2004an UGTk, CCOO eta  
LABek Metalgintzan –2005ean errepika-  
tu zen– eta Osakidetzan akordioak lortu  
zituzten. ELAren haserre handia eragin  
zuen horrek. 1980ko eta 1990eko ha-  
markadetan ia pentsaezinak ziren mol-  
de horretako mugimenduak, baina XXI.  
mendean hainbatetan errepikatu dira.  
Akordio berrien testuinguru hartan, hala-  
ber, 2005eko otsailean LABeko eta UGT-  
ko idazkari nagusien lehen bilera ofiziala  
eman zen. Sasoi hartan, ezker abertzalea  
eta PSOE 2006an emango zen Loliako  
prozesua prestatzen ari ziren jada.

Esparru ekonomiko eta sindikalean  
ere urte latzak izan ziren: 2008tik aurre-  
ra herrialde garatueto ekonomietan  
ireki zen finantza krisi gogorak lurri-  
kara ekarri zuten euskal gizartera eta,  
euskal gehiengo sindikalak gidatuta,  
2009tik 2013ra sei greba orokor anto-  
latu ziren Hego Euskal Herrian. Neoli-  
beralismoaren estutzeak, ordea, aurrera  
jarraitu zuten eta langileen eskubideetan  
atzera egin zen; adibide moduan, erre-

tiro adina 65 urtetik 67 urtera luzatu zen, eroste ahalmena txikitu egin da eta prekaritatea eguneroko ogi bihurtu da, bereziki gazteen artean. Oro har, gizarteko sektore zaurgarrienak biziki ahulduta atera ziren krisi horretatik. 50. urteurrenaren karietara LABek argitaratutako liburuan epai zorrotza egin du Ainhoa Etxaide idazkari nagusi ohiak: “Ez genuen lortu agenda neoliberalaren inposaketa ekiditea”.

### BELAUNLDI ALDAKETA

Testuinguru horretan guztian, LABek bere burua birmoldatzen jarraitu behar zuen. 1992raino egin behar da atzera emakumearen alorrak bere lehen urratsak modu ofizialean egiten ikusteko, orduan sortu baitzuten Emakumearen Esparrua, III. Kongresuan; afiliatuen herena emakumezkoa zen jada sindikatuan, baina Kongresuan hautatutako zuzendaritzan 23 kideetatik bakarra zen emakumea. Mende berriarekin bat, feminismoaren aldarriak indartzen joan ziren apurka, eta hori gizartean ere islatzen zen. Horrela, 2008an Ainhoa Etxaidek ordezkatu zuen Rafa Diez idazkaritza nagusian, eta 2017an beste emakume batek ordezkatu zuen Etxaide: Garbiñe Aranburuk, oraingoa koor-

dinatzaile orokorraren tituluarekin. 2022tik aurrera Aranburuk Igor Arroyorekin partekatzen du koordinazio kargua. Feminismoaren apurkako indartze hori barik, nekez uler daitezke geroago etorriko ziren Martxoaren 8ko eta zaintzaren inguruko grebak.

2000. urtean Ipar Euskal Herrira ere zabaldu zen LAB, eta hango koordinatzailea emakumea da ere gaur egun, Argitxu Dufau. Hainbatetan Frantziako sindikatu nagusienen boikota jasan behar izan badu ere –adibidez, Maiazaren Lehenean Baionan–, lortu du harrresi hori gainditzea, eta lan eremuaz gain, etxebizitza eta ekologiaren munduan ere ari da lanean. XX. mendeak alorugaritara berregokitu beharra ekarri die sindikatuei, izan mugimendu feministaren bultzadagatik, izan klima aldaketaren eraginagatik. 1974an independentzia eta sozialismoa ziren LABen iparrorratzak, eta gaur egun ere horretan darrai: “Independentzia da Euskal Estatu Sozialista eratzeko bitartekoak eta baldintzak bermatzen dituen estatu bakarra”. Sortu eta Ernairekin batera osatzen du gaur egun ezker abertzaleko antolaketa esparrua.

Klase sindikatua da LAB, baina “soziopolitikotzat eta kontraboteretzat” ere

jotzen du bere burua, eta aire berrien bultzadan barneratzen ditu bestelako adjektiboak, besteak beste, “feminista, antiarrazista, inklusiboa, internazionalista eta ekologista”. Mende hasierako 35 orduko lanaldi aldarrikapena 30ekoa bihurtu da gaur egun, desazkundearen gai konplexuari nolabaiteko irudia emateagatik, 1.400 euroko gutxieneko soldata eskaera hor dago, eta zaintza sistema publiko komunitarioak ere oinarritzko lekua hartu du bere jardunean. Eta bide bihurri horietan, Euskal Herriko ordezkariak sindikalaren %20 desiatua gainditzekotan da.

2021ean EHUko irakasle Jon Las Herasek eta Lluís Rodríguez ekonomilariak Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko gatazka sozialak aztertu zituzten, eta bateko zein besteko greba kopuruak ere konparatu zituzten: greba gehiago eta gatazka sozial gehiago dagoen lekuetan, langileek lan baldintza hobekoak dituztela ondorioztatu zuten. Ez da iparrorratz txarra sindikatu batentzat, sindikatuek, oro har, une samurrak bizitzen ez dituzten garaiotarako. LAB indarrez iritsi da mende erdiko talaiara eta, itxura guztien arabera, egoera egokian dago sindikalgintza modernoaren erronka handiei aurrez aurre begiratzeko. ●

Irail-urrikoa, kalean!

**EUSKARA  
IKASLEA  
ZARA?  
IRAKASLEA?**

**● EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**  
**● BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**  
**● 10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza [aizu.eus](http://aizu.eus) atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



langile  
abertzaleen  
batzordea  
www.lab.eu



## “Elkarlanari uko egiteko, ELAk errelato bat eraiki du, CCOO eta UGTrekin aliantzak egin ditugula”

Garbiñe Aranburu

2017an izendatu zuten LABeko idazkari nagusi eta gaur egun Igor Arroyorekin partekatzen du kargua. Eredu sindikalak, aliantzak, helburu orokorrak eta etorkizuneko erronka handiak landu ditugu ondoko lerroetan. Eskuin muturraren mamua ere agertu da.

 XABIER LETONA BITERI

 DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

**50 urte hauetan denetik egon da euskal sindikalgin-tzan: 80ko urteetan, adibidez, UGT, CCOO eta ELA alde batean zeuden, eta LAB eta beste batzuk bestean. Gero ELA-LAB gehiengo nagusitu zen, eta geroago negoziazio kolektiboan UGTrekin eta CCOOrekin akordioak erdietsi dituzue hainbatetan... Nola aurreikusten dituzu blokeon etorkizuna?**

LAB da hasieratik kontraboterea egin duen sindikatu bakarra. Hasieratik da independentista eta euskalduna. Lurrari ondo itsatsitako sustraiak ditugu, enborra sendotzen joan den proiektua da gurea eta adarrak zabal-tzen ari da. Klase borroka eta nazio askapena ondo uztartu ditugu, eta ekosistema sindikala aldatzen ere ekarpen handia egin dugu.

Hiru eredu sindikal daude hemen: batetik, CCOOren eta UGTren kon-

trabotazio eredu, elkarriketa sozia-lean oinarrituta eta kontrabotere izaerarik gabea; bestetik, LAB eta ELA kontraboterean gaude, baina estrate-gia desberdinekin eta harreman go-rabeheratsuekin. Guk kontraboterea ez dugu erresistentzia klabe hutsean ulertzen, herri honetan eraldaketa soziala eta eraldaketa politikoa guztiz lotuta ikusten ditugulako. Kontrabo-terea herri botere baten eraikuntza gisa ulertzen dugu. Presio sindikala, mobilizazioa eta konfrontazioa behar beharrezkoak direla deritzogu, eta indar hori baliatu nahi dugu klase bo-rroka eremu guztietara eramateko.

Beraz, estrategia desberdinak daude eremu sindikalean, baina ez da egia gu CCOOrekin eta UGTrekin inongo aliantza esparrutan gaude-nik. ELAri dagokionez, gustatuko li-tzaiguke gauzak beste puntu batean egotea, ELAren eta LABen gehiengo sindikala indarrean balego, poten-

tzia handiagoa izango genukeelako, bai patronalaren, bai instituzioen aurrean. Une honetan ez gaude hor eta etorkizun batean bideak esango du.

### **Negoiazio kolektiboan, zertan bereizten zarete LAB eta ELA?**

ELA, gu bezala, hainbat hitzarmenetan etorri da bat CCOOrekin eta UGTrekin. Negoiazio kolektiboan, gure arteko desberdintasun handienak ez dira CCOO eta UGT, baizik eta LABek ulertzen duela langile guztiontzako tresna bat garelako, gure eredu sindikala ez dugula gure helburu korporatiboan arabera antolatuta, eta ELAk hori beste modu batera lantzen du. Kontuan izan behar da ez dugula ahalmen legegilerik ez eskuduntza osorik enplegu gaietan. Negoiazio kolektiboak funtzio garrantzitsua du euskal esparruaren egituratzean, LABek beti defenditu izan ditu sektore arteko negoziazio kolektiboa, sektorekoa eta enpresetakoa, eta hor izan ditugu desberdintasunak ELArekin, eta ez bestelako aliantzetan. Gero, edukien arabera, ematen dira argazki batzuk edo besteak.

### **LABen eta ELAren arteko harremanak izoztuta daude gaur egun. Zer oinarri behar dira elkarlan hori etorkizunean sendoa izan dadin?**

2017an sinatu genuen adierazpen bateratuan baziren konpromiso batzuk eraldaketa politiko eta sozialean oinarritutako prozesu bat bultzatzeko. Adierazpen hori sinatu eta denbora gutxira ELAk akordioa garatzeari uko egin zion. Horren ondoren, elkarlanari uko egiteko errelato bat eraike du, eta horren parte da esatea LABek aliantza politika aldatu duela, eta CCOOrekin eta UGTrekin hitzarmenak sinatzen dituela. Guk erabaki dugu euskal langileei inolako onurarik ekartzen ez dien errelato hori elikatzen ez jarraitzea.

ELAk dio independentista dela, baina kontuan izan behar da Trantsizioaren garaian ELAk ez zuela hausturaren aldeko apusturik egin, hautu erreformista egin zuela; garai haietan ez zegoen kontrabotere posizioan, eta autonomia ontzat eman zuen. Ondoren, LABek tiratu du nagusiki Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldeko ekimenen gurditik, eta LABen ekimenez bideratu ziren 1994ko manifestua eta manifestazioa. Independentista dela dio ELAk, Euskal Estatua behar dugula, baina urte hauetan guztietan ez du inolako praktika independentistarik erakutsi.

## **“Desazkundeari heltzea kosta egiten da eta gurean ere ondo neurtuta sartu dugu hitza, 2017tik gatz hausnarketa horrekin”**

### **1974an LABen helburua Euskal Estatu Sozialista eraikitzea zen, eta orain ere bai. Gaur egun zein ezaugarri ditu estatu sozialista horrek?**

Euskal Estatu Sozialistari mamia jarri diogu, edukiz bete dugu. Sozialismo hori irudikatzerakoan programa sozio-ekonomiko bat landu dugu: nolako zerbitzu publikoak izan beharko genituzkeen, estatuaren papera zein izan behar den ekonomian, langileek zein protagonismo

izan beharko luketen estatu horretan, demokratizazio prozesuak nolakoa izan beharko lukeen, bai nazio gisa, bai langileen parte-hartzean ekonomian. Lan kode proposamen bat jaso dugu, gizarte segurantzako lege propio bat, trantsizio energetikoan beharko genukeen industria politika, trantsizio ekosoziala, zaintza sistema publiko eta komunitario baten beharra ere planteatzen dugu... Programa honen birtualitate handiena da trantsiziorako bide bat ere marrazten duela, teoria hutsean geratu gabe.

2015ean eredu sindikala birpentsatzeko prozesua egin genuen eta 2017ko kongresuan ideologikoki berritze inportantea gauzatu genuen, lana-kapitalaren dikotomiatik bizitza-kapitala dikotomiara eginez. Enpleguaren defentsatik bizitza duinen defentsan arituko den sindikatu batera jausi egiteko.

### **Trantsizio ekosoziala aipatu duzu. Ekosozialismoak eskatzen du produkzio gutxiago, desazkundera.**





Maiatzaren Leheneko ekitaldi bat Bilboko Arriaga Plazan. / ARGAZKIA: LAB

### **Eta horrek lan eta enplegu gutxiago. Nola egin aurre egoera horri?**

Gure berrikuntza prozesuan edan dugu feminismotik, ekosozialismotik eta antiarrazismotik, besteak beste. 2017an ekosozialismorantz egin behar genuela erabaki genuen eta oraingo kongresuan desazkudearen beharraz hitz egin dugu. Eremu batzuetan desazteak beste batzuetan hazteko aukerak ematen ditu, besteak beste zaintzaren eta zerbitzu publikoen eremuetan. Honek guztiak enpleguaren munduan izango duen eraginari begira, lanaldi murrizketa sakona planteatzen dugu: 30 orduko lanaldia. Oraindik guk bakarrik jarri dugu mahaiaren gainean horrelako erreferentzia bat, eta aldarrikapenak pixkanaka egin beharko du bidea. Kapitalismo berdearen iruzurra hor dago, eta horregatik diogu langileon parte hartzea ezinbestekoa dela. Horregatik, trantsiziorako batzordeak deitzen ditugunak sortzea proposatu dugu, behar den eztabaida soziala egon dadin.

### **Eztabaida politiko eta instituzionalean desazkudearen gaiak ez du existitzen. Tabu da parlamentuetan, udaletxetan... ia edozein erakundetan.**

Hitz horri heltzea kosta egiten da eta gurean ere ondo neurtuta sartu da hitza, 2017tik gatz hausnarketa horrekin. Guztiok interpelatzen gaitu, norbanakook ere gure erantzukizuna dugu, besteak beste zer eta nola kontsumitu nahi dugun erabaki dezakegulako, baina erantzukizun hori bada instituzionala ere, patronalarena... eta horregatik diogu eztabaida marrokorragoak behar ditugula.

### **Europar ikusten ari gara ezkerreko mugimenduek eta sindikatuek baino eskuin muturrak erakartzen dituela langileak.**

Eskuin muturra eta faxismoaren hedatze horren atzean sistemak berak sortzen duen bizi espektatiba falta dago. Kolektiboaren kaltetan, indibidualizazioaren areagotzea ekarri du neoliberalismoak. Sistemak sortutako desberdintasun sozialen ezinegon hori baliatzen ari da eskuin muturra, oso mezu errazekin, langile migratzaileak etsai bihurtuta, edota feminismoaren aurrerapenen aurrean erreakzio matxista eraginda. Euskal Herrian ez gaude balio erreakzionario horietatik salbu, baina zorionez bestelako errealitate politiko eta sindikala dugu. Horren guztiaren aurrean antidotarik onena da sindikalismo borrokalaria, feminista eta antiarrazista. Eskuin muturraren errelatoa oso modu azkarrean ari da zabaltzen gizartean eta oso adi egon behar dugu horren aurrean.

### **Euskal Herrian ere bai? Lantokietan sumatzen duzue?**

Lantokietan oraindik ez, baina gizartean oro har bai, badira mezu asko: migratzaileak eta segurtasuna lotzen direnean, eguneroko elkarrizketetan badira mezuak, tik batzuk... McDonald's-ak hasi zirenean, "Euskal Herriera ez dira iritsiko" esaten genuen, baina iritsi dira. Mezu, ideia eta jarrera erreakzionarioei aurre egiteko antidotoa prest izan behar dugu. ●

1990ean sortua



Aholkularitza zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditugu:

- Zerga-ordainketak
- Merkataritza
- Kontabilitatea
- Legedia
- Lan esparrua

Urbietia, 15. Hernani.  
943 33 12 67  
Brintza.com



Koop  
**mitxelena**  
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen mekanizazioan espezialistak



Eziaga industrialdea 21. HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus

## MADDI KINTANA

# “Badirudi lagunarteko hizkera, Hegoaldean eta Iparraldean, ezin dela banandu gaztelaniatik eta frantsesetik”



Maddi Kintanak ekainean aurkeztu du Master Amaierako Lana Bordeleko Unibertsitatearen eta Iker ikerketa-zentroaren laguntzarekin. *Gazteen hizkera BAM eta inguruan* du izenburu eta Biarritz, Baiona eta Angeluko 18 eta 24 urte bitarteko gazteen hizkera aztertu du. Horretarako, beraiei eskatutako Whatsapp audioak eta berriaz antolatutako eztabaida saioak egin ditu. Irantzu Epelde izan du zuzendari. Baionan bizi den donostiarrak bizi den lekuko euskara aztertu nahi zuen, baita bere lagunaren hizkera ere.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  SABINA HOURCADE

**Hipotesi bat zeneukan: BAMEko gazteen hizkerak frantsesaren eragina du, batez ere; eta euskara batuarena ere bai. Hipotesia bete da?**

Frantsesaren hipotesia bete da, eta uste baino haratago joan da. Ahoskeran frantsesaren ezaugarri pila bat topatu ditugu, espero ez genituenak. Egia esan, uste genuen euskara batuaren eragina handiagoa izango zela ahozko lagunarteko hizkeran. Euskara batuan gauza bitxi batzuk topatu ditugu. Adibidez, ñ hotsaren erabilera. Berez, hemen, ez lukete egin beharko, 'baina' esan beharko lukete, eta ez 'baiña'. Ez dugu argitu batuaren edo Hegoaldeko hizkeraren eragina den. Hipotesia da, ordea, ikastolak zeresana izan dezakeela, eta beharbada beste faktore batzuek ere bai, adibidez, Hegoaldeko ikus-entzunezkoen ekoizpenak. Ez dugu aztertu zehatz-mehatz.

**Nongo frantsesa ari dira imitatzen? Parisko aldiriak aipatu dituzu zure lanean. Hara begira daude hemengo gazteak?**

Ez dugu zehazki aztertu ze frantses ari diren egiten. Dena den, Parisko aldirietako gazte hizkerak, oro har, frantseseko hizkera arduragabea –lagunartekoan– eragin handia dute. Handik datoz rape-roak, kultura herrikoiak indar handia du, *streamerrak* ere hor dira... Eta hori kontsumitzen dute gazteek. Badu eragina, zeren, azken finean, Frantzia oso estatu zentralizatua da. Aldiri bakoitzak izango du bere hizkera, baina Paristik eta Marseillatik etortzen dira gauza batzuk. Dena den, ez dut sakonki begiratu. Baina Parisko aldirietako hizkerari buruz irakurtzen aritu gara eta konturatu gara han gertatzen diren gauzak gertatzen direla gure gazteen ekoizpenetan. Ez dugu sakon aztertu, baina badago paralelismo argi bat.

**Zure lanean esan duzu ez dutela, oraingoz, arabismorik erabiltzen. Ez dugu jaso.**

**Ados. Ez zaizue agertu, baina agian badarabilte.**

Bai, bai. Nik entzun ditut kalean arabismoak euskaldunen artean. Oso-oso gutxi, baina entzun ditut. Kontua da gure ekoizpenetan ez zaizkigula agertu. Salbuespena litzateke. Dena den, posible da hurrengo belaunaldietan agertzea.

**Hala gertatuko balitz, zergatik izango litzateke, Internet bidez eta ikus-entzunezkoen bidez sartu delako ala euskaldunek harreman zuzenak dituztelako hizkera horretan ari diren gazteekin?**

Nire iritziz, kultura herrikoia bidez dator, baina ez eguneroko harremanetatik. Baionan badago ZUP auzoa... baina





Maddi Kintanak eremu urbanoko gazteen hizkera aztertzen jarraitu nahiko luke. Aukera badu Lapurdiko kostalde osora zabalduko du lana, eta Hendaia aztertu.

ez dut uste halako harremanetatik datorenik. Arabismoak oso hedatuak daude, oso erabiliak dira, ez da gazte mota jakin bati lotzen zaion hizkera. Lanean aipatu dut *wesh* hitza, baina ez da agertu nire corpusean. Agurtzeko forma bat da. Hitz hori esan lezake edozeinek, ez du izan behar profil linguistiko zehatz batekoa. Hitz batzuk demokratizatzen dira. Hegoaldean ez bezala, Frantziako Estatuan hip-hop kultura oso bizirik dago, oso aberatsa da eta auzo periferikoetatik dator, Marseillatik eta Paristik. Eragin kultural izugarria du.

### **Hegoaldeko eta gipuzkeraren zantzuak aurkitu dituzu. Nondik nora agertu dira arrasto horiek?**

Gure lana zer ikusi dugun deskribatzea izan da, eta hortik aurrera, hipotesi batzuk egin ditugu: gurasoen eragina izan daiteke [Hegoaldekoa dutelako bateren bat] eta ikasketak Hegoaldean egin izana edo egiten ari direla. Baina konturatu ginen forma horiek erabiltzen dituzten

## **“Alde batetik, ‘Iparraldeko batua’ sortzen ari da, eta aldi berean frantsesaren eragina inoiz baino indartsuagoa da”**



batzuen gurasoak frantsesdunak direla, eta haien giroan ez zegoen Hegoaldeko jende asko. Orduan, ezin du izan gertutasun geografikoa edo familia. Beste faktore batzuk bilatu behar dira eta gure hipotesia ikastola da. Agian euskarazko eduki gehienak Hegoaldean sorzen direlako... baina ez dugu ikertu eta gure iritzia baino ez da.

**Lizeoaren eragina ere aipatu duzu. Alegia, ikastolak hainbat dira, baina Ipar Euskal Herriko ikasle guztiak euskarazko murgiltze sisteman**

### **ikasteko lizeo bakarra dute, Bernat Etxepare.**

Parte-hartzaile gehienak pasa dira Etxepare lizeotik, eta ez direnak pasa kolegiotik pasa dira [bost kolegio ditu Seaskak]. Ez dago alde handirik beraien artean. Denen artean batek ez du ikasi ikastolan, eta nabari da. Nabari da euskara ikasi duela hezkuntza nazionalako sail elebidunean. Zoritxarrez, ez dut lortu beste inor irakaskuntza elebiduneko, horregatik ikerketa hedatzeko aukera baldin badut saiatuko naiz elebiduneko ikasleengan indarra jartzen. Hor jende asko ari da euskara ikasten, baina ez dakigu batera nola hitz egiten duten. Heltzen zaiguna da gero AEKra joaten direla asko. Adibide honetan oso nabaria da aldea, elebidunekoaren eta besteen artekoa.

### **Zertan aldea?**

Jarriotasunean, frantseseko hitzak sartzen zituen, zalantzak zituen ekoizpenetan, bere ekoizpenak gramatikalki



okerrak ziren gehienak. Esan daiteke, kasik, ez zela gai esaldi oso bat ongi egiteko. Ulertzen zuen dena, ahal zuen parte hartu, baina frantsesa kalkatzen zuen zuzenean euskarara. Baina esan dudan moduan, lekuko bakarra izan da eta hori ez da aski esateko "elebidunekoek horrela hitz egiten dute".

**Lanean diozu gero eta homogeenago hitz egiten dutela, eta era berean esaten duzu BAMEko hizkera eta Hegoaldekoa urruntzen ari direla. Beraz, ikastolaren eragina nabari da eta homogeneizatzen ari da darabilten euskara, baina frantsesaren eragina are eta handiagoa delako urruntzen da Hegoaldetik?**

Bai, hori da. Jende gehiagok ere esan du. Mugaldeko hizkerak aztertu zituen Alex Arzelusek eta esan zuen Luzaiden, Arnegin eta Garazin, adibidez, muga politikoa muga linguistikoa bihurtu dela. Ez dut mugaldeko hizkera aztertu, baina ikusita frantsesaren eragina pentsatzen genuen, "Hegoaldeko norbaitek irakurtzen baldin badu hau ez du erdia ulertuko azalpenik gabe!". Lanaren defentsan baziren Hegoaldeko irakasleak eta pentsatu behar genuen, adibidez, haiei nola azaldu. Alde batetik, homogeneizatzen ari da, 'Iparraldeko batua' sortzen ari da, eta egia esan ez dago oso ondo definitua zer den hori, eta aldi berean frantsesaren eragina inoiz baino indartsuagoa da. Muga politikoa inoiz baino errazagoa da zeharkatzeko, baina inoiz baino handiagoa da, eta nabaritzen da hizkeretan, erreferente kulturaletan. Hemendik aurrera konplikatuko da elkar ulertzea; edo hizkera-erregistroa pasatuko dute

erabat batura, zeren hizkera arduragabea konplikatua izango da.

**Beraz, erregistro formalagora joko dute elkar ulertu ahal izateko, batuagoa, ikasitakoa.**

Hori iruditzen zait behintzat. Oker egon naiteke. Nire inguruan ere hori ikusten dut: batura jo eta hizkera arduragabea pixka bat lausotu. Badirudi hizkera arduragabea, euskaraz, bai Hegoaldean eta bai Iparraldean ezin dela banandu ez gatzeleratik ez frantsesetik.

**Ezaugarri bereziak dituen eremua aukeratu duzu ikerketarako: esparru urbanoa eta Ipar Eukal**

## Bollera hitza Hegoaldeko mugimendu feministaren eragina

"Gaztelania oso gutxi agertu da. Kasu oso interesgarria: bollera hitza agertu zen eztabaida saio batean. Hegoaldetik feminismoaren olatua ari da hedatzen Ipar Euskal Herrian eta nire hipotesia da horren eraginaren lekuko dela hitz hori. Ikusi ahal da fenomeno horrek hiztegi aldetik-eta zer nolako eragina ekar dezakeen. Bestalde, geroz eta ikasle gehiago joaten dira ikastera Hegoaldeko unibertsitateetara. Zer eragin izango ote du horrek euskaran?"

**Herriko eremurik frantsestuena. Interes berezia zenuen eremu hau lantzeko?**

Konturatu nintzen Lapurdiko kostaldean badirela oso gauza interesgarriak eta hementxo hizkerak eta gazte hizkerak ez dituela inork aztertu. Fokua jartzen da euskalkietan, euskalkidun "purueta" (gaur egun ia ez dira existitzen). Frantses-euskara kode aldaketa ia aztertu gabe zegoen. Irantzu Epelde zuzendariari esan nion nahi nuela bizi nintzen tokiko euskara aztertu, eta aitortu zentzu batean. Hirietako euskaldunei buruz egin nahi nuen lana. Donostiakoa izanda, sentitu dut askotan ez ginela, beharbada, maila berean herrietako euskaldunekin konparatuta, edo horrela sentiarazi gaituzte behintzat. Ez ginela euskaldun onak. Hemen ere, konturatu nintzen gauza bera zela. Baiona oso eremu erdalduna da, egin daiteke euskaraz, baina jakin behar duzu ongi non egin dezakezun. Euskaldun gehienak hemen bizi dira, nahiz eta proportzioan ez izan hala. Hemen gertatzen denak ere badu eragina gerora. Faktore askorengatik aztertu dut gai hori, eta nagusiki hemen bizi naizelako eta nire lagunak euskara aztertu nahi nuelako.

**Aitortu, esan duzu. Gutxietsiak izanaren aurka egin nahi zenuen?**

Ez dakit aurka egin, baina behintzat aitortu hemen bazirela euskaldunak. XIX. mendeko Peru Abarkatik: baserrikoak eta kaletarrak, batzuk euskara puru ona dutenak, bestek nahasi txarra. Askok dituzte konplexuak hirikoak direlako eta ez dutelako euskalkirik. Eztabaida saioetan horrelako sentimenduak agertu dira. Bai, aitortu nahi nuen; bai, badira euskaldunak hirian, eta euskaldun osoak direnak.

# “Bikote batek 116 aldiz erabili du 'fin'”



**M**addi Kintanak frantsesaren eragina xehetu duenean, bereziki kode-aldaketak (euskara eta frantsesa nahasian erabiltzea, baita esaldi berean ere) eta kalko fonetiko eta semantikoak aztertu ditu.

Gazteek eztabaida saioetan eta grabatutako Whatsapp audioetan erabilitako hainbat adibide eman dizkigu Kintanak.

Adibidez, oso ohikoa da frantsezko hitz bat erabiltzea euskarazko egitura gramatikala mantenduta, eta frantsesez ahoskatzea. *Scotch* (zelo) hitza aurkitu du Kintanak: *En fait aantzi dut scotch-a, barkatu*. Hurrengoan aditza, *forcer* (euskaraz behartu), mailegatu du gazteak, euskarazko egitura eman dio eta erdizka-edo ahoskatu du frantsesez: *Bai ene ustez ori da, ben forceatu dituzte bakoi-tzak cliché guztiak aipatzea*.

Ahoskera hibrididoaren beste adibide bat aurkitu du, *engueuler* (errieta egin) aditza erabilia: *... eta pixkat euskara akzeptatzeko eta aien engueulatzeko aien kabuz*.

Asko aurkitu duen beste fenomeno bat afrikazioa da. Afrikazioa da soinu frikatua afrikatu bihurtzea, demagun [s] hotsa [tʃ] bihurtzea. Kintanak kontatu digunez, Frantzian, 2024 hasieran, hedabideek afrikazioaren inguruko “larrialdi deia” egin zuten, gazteek afrikazioarekin hitz egiten omen zutelako. “Izugarrizko polemika egon da; auzo periferikoetako gazteek erabiltzen

duen hizkera hori ez omen da polita frantsesez eta polemika arrazakeriarekin lotuta egon da”. Frantsesezko afrikazioaren bat aurkituko zutela uste zuten, baina parte-hartzaile baten baino gehiagoren hitzartzeetan aurkitu dituzte. Esate baterako, batzuek *beti* hitza [beti] honela ahoskatzen dute: [betʃi] eta *maitia* [maitia] [maitsia].

Sinkopei ere tarte garrantzitsua eskaini die Kintanak. Sinkopak hitz baten barnean fonema bokaliko bat erortzen denean gertatzen da. Hasieran, Kintanak uste izan zuen sinkopa egiten zutela hiztunek hizketa erritmo lasterra zutelako, baina eztabaida saioetan konturatu ziren denek egiten zutela. *Zeren eta* lokailuaren adibidea eman digu: “Iparraldean *zenta* kontrakzioarekin erabili ohi izan da, baina *zeta* eta *zta* kontrakzioak ere entzun daitezke orain. Ikus dezakegu euskarazko bokal bat topa dezakegun lekuan (a, e, i, o, u) hiztunak ez duela ahoskatzen, eta horren ordez frantsesetik eratorria den *schwa* [ə] hizkia erabiltzen du edo guztiz ezabatzen du”.

## **Maddi, entzun dizugu esaten zaila dela esaldi bat aurkitzea kode aldaketarik gabe.**

Adin guztietan gertatzen da, besteak beste diglosia egoerak eragiten du kode aldaketa. Adierazkortasuna emateko edo lexiko falta sentitzen dutelako

erabiltzen dute hiztunek, eta gazteek areago. Ez da gazte hizkeraren ezaugarri bat, baina gazte guztiek egiten dute. Batez ere diskurtso markatzaileekin egiten dute, *zera, tira*, horrelakoen ordez. Gehienak frantsesez erabili dituzte, etengabe. Bikote batek 116 aldiz erabili du *fin* 56 minutuan. Horrelako adibideak hamarnaka eta hamarnaka ditugu.

## **Ez dakite nola esan euskaraz?**

Ez dut uste kontzienteki egiten dutenik: “Ui, ahantzi dut nola esaten den hitz hau euskaraz!”. Jario handiko hizkeren barnean jasotako adibidea da *fin*-en erabilera. Parte-hartzaileek esaten zuten frantses gutxiago nahiko luketela erabili haien hizkeran, baina orokortua eta normalizatua da kode-aldaketa.

Nire lanaren zati handi bat hartu dute diskurtso markatzaileek. Hona beste adibide bat: *baina* erabiltzen dute, baina *mais* askoz gehiago.

## **Ingelesaren arrastoak ere jaso dituzu.**

Hegemonia anglofonoaz ari gara, sare sozialen eta ikus-entzunekoen eraginarekin lotzen da erabilera: TikTok, Instagram-meko edukiak, influencerrak, meme kultura, twitter kultura... horietako hitzak agertzen ziren gure saio gehienetan.

Eta bitxikeria bat: ingelesezko hitzak erabiltzen dituzte, baina ahoskera frantsesezkoa da, eta ez euskarazkoa. ●



## ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK  
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • [www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)

## “Oso arriskutsua da pentsatzea edonork irakatsi dezakeela zeinu hizkuntza”

Sarean lan egiteko elkar entzutea eta errespetatzea “nahitaezkoa” da Aitor Bedialaunetarentzat (Ondarroa, Bizkaia, 1991). Euskal Gorrak, Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioko presidentea zeinu hizkuntzaren kalitatea zaintzearen garrantziaz mintzatu da. Salatu du Hego Euskal Herrian ez dagoela zeinu hizkuntzako unibertsitate gradurik eta interpreteak falta direla.

 OLAIA L. GARAIALDE



*Aitor Bedialauneta*

**D**uela gutxi arte, zeinu hizkuntza erabiltzea debekatuta zegoen. Gizarteak ez zuen hizkuntzat hartzen eta soilik “seguruak” ziren espazio pribatuetan erabiltzen zen; esate baterako pertsona gorren elkarteetan. Urteekin aldatuz joan dela azaldu du Bedialaunetak: “Pertsona gorren aldarrikapenei eta borrokari esker, zeinu hizkuntza euskal gizartearen txertatzen hasi gara, eta hizkuntza erabiltzen duen geroz eta jende gehiago dago”. Hala ere, ohartarazi du tentuz erabili, eta hizkuntza eta kalitatea zaindu behar direla: “Zeinu hizkuntzaren erabilera desegokia egiten badugu, pertsona gorrok sufrituko ditugu kalte ordainak”. Nabarmendu du garrantzitsua dela hizkuntza errespetatzea eta transmisioa ez uztea edonoren esku: “Borondate onez izan arren, nahi gabe gauzak gaizki egin daitezke. Garrantzitsua da edozein zalantzaren aurrean gorroi galdetzea”.

Gorren elkarte-mugimenduak egindako aldarrikapenengatik sortu ziren

“Irakasle gorrek egotea nahi dugu, ikasleek komunitate gorrarekin harremana izateko”

zeinu hizkuntzako interpreteak. Euren lana zeinu hizkuntza dakitenen eta ez dakitenen arteko komunikaziorako zubi-lana egitea da: “Interpreteak ez daude protagonismoa izateko edota pertsona gorren ordezkariak izateko, ez dute inoren izenean hitz egiten, hizkuntza batetik bestera interpretatzen dute”.

Formakuntza urria dela eta, aspalditik salatzen dute interpreteak falta direla. Beste hizkuntza batzuen kasuan, hala nola euskararen, frantsesaren eta gaztelaniaren kasuan, itzulpena eta interpretazioa ikasteko graduak daude Euskal Herriko Unibertsitatean. Zeinu hizkun-

tzaren kasuan, aldiz, ez: “Zergatik dira ahozko hizkuntzak unibertsitateko graduak eta zeinu hizkuntza goi mailako ziklo bat?”. Urteak daramatzate federazioetik unibertsitateko gradu bat eskatzen: “Administrazio publikoek uste zuten goi mailako ziklotik ateratzen ziren promozioekin aski zela, eta guk eskatu arren, uste zuten ez zela beharrezkoa interprete gehiago sortzea”.

2016. urtean, goi mailako zikloaren ordezkari Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan gradua ezarri behar zuten, baina ez zuten egin. 2018. urtean alarma piztu eta profesionalak falta zirela salatu zuten: “Administrazioarekin hitz egin genuen, baina ez ziguten entzuten”. Beharrak gora egin zuen, eta Eusko Jaurlaritzak 2020an hasi zen larritasunaz ohartzen: “Ezin ziren zerbitzu asko bermatu, ez zegoelako interpreterik; esate baterako, hezkuntzan ikasle batzuk interpreterik gabe zeuden”. 2024-2025 ikasturteari begira EHUK titulu propio bat eskainiko du urrian. Urtebeteko formakuntza izanen da. Federazioko

presidentearen arabera, gradu bat ez den arren, formakuntza osoa eskaintzera bidean urrats bat da.

## IRAKASLE GORRAK ERDIGUNEAN

Kontent bada ere, kritiko da irakasleekin, eta nabarmendu du beharrezkoa dela irakasle gorra egotea. Madrilgo Juan Carlos Erregea Unibertsitatearen kasuan, lau urteko gradu bat dute, baina ez dago irakasle gorrik: "Hortik ateratzen diren interpreteen promozioek, ez diot denek baina orokorrean ez dutenez harremanik komunitate gorrarekin, ez dute pertsona gorrenganako jarrera positiborik eta errespetu faltak dituzte". Nabarmendu du ez dutela eredu hori erreproduzitu nahi EHU-n: "Interpreteak pertsona gorroi esker sortu dira. Irakasle gorra egotea nahi dugu, ikasleek komunitate gorrarekin harremana izateko".

Interpreteak ongi trebatzeaz gain, gaineratu du idealena litza-tekeela gizarteak oro har zeinu hizkuntza jakitea. Jakin ezean, onena da testu labur eta sinpleen bidez komunikatzea, dio: "Jende askok esaten digu ezpainak irakurtzeko, baina hori oso zaila da. Mundu guztia ez da gai ezpainak irakurtzeko, denek ez dute berdin ahoskatzen, alegia, poliki. Gainera, bost minutu baino gehiago horrela ibiltzea ezinezkoa da. Ezin da komunikazio segurua bermatu".

Horregatik, txalotu du zenbait institututan zeinu hizkuntza hautazko irakasgaia izatea. Halere, hizkuntzaren kalitatea bermatzea beharrezkotzat jo du: "Zeinu hizkuntza dakien edonork irakatsi dezake? Ez, oso arriskutsua da pentsatzea edonork irakatsi deza-keela zeinu hizkuntza. Prestakuntza berezia duen norbaitek egin behar du". ●



## GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Begiak eta eskuak. Elkarri entzutea nahitaezkoa da elkar babesteko, eskutik lan egiteko eta sarea egiteko. Gorron kasuan, begien bidez egiten dugu hori. Horrez gain, eskuak nahitaezkoak dira komunikaziorako".



## 'SASOITU' ATAL BERRIA ASTEKARIAN



Itxaurrondoa



Kuak



Pikuak

## Lurraren erritmoan beharko luke gorputzak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**H**erriko festa betean harrapatu nau artikulua idatzi beharrik eta gaztetxoak astebete kanpoan pasa ondoren etxera itzuli eta barazki platerkada bat eskatzen duen moduan etorri zait niri ere, uda pasata, errutinan murgildu eta gorputzari osasuntsu jaten emateko asmoa. Amaia Diaz de Monasteriogurenekin (Oñati, 1976) hitz egin dut, nutrizionista bera, eta interesgarria iruditu zait kontatu didana. ARGIA astekarian, *Bizi Baratzea* atalean, hilabete bakoitzeko lehen astean idatziko du artikulua. *Sasoitu* da atal berriaren izena.

“Lurraren erritmoak eta logika, gorputzarenak ere badira”. Hala esan dit oñatiarrak. “Elikadura eta pertsonak dira nire pasioa. Hau ardatz izanik, naturak, emozioek, eguneroko ohiturek... gorputzean eta osasunean duten eragina aztertzen, sakontzen eta ikasitakoa konpartitzen dihardut gaur egun”, azpimarratu dit. “Garaikoa, bertakoa eta ekologikoa jatearen garrantziaz aritzen gara, baina nik hori dena zertarako? galderari erantzun nahi diot, zer garrantzi duen horrela elikatzek gure ongizatean; eta horretaz ariko naiz hileroko artikulua hauetan. Baloreari jarri nahi ditut garaian

garaikoak gure gorputzari ekartzen dizkion onurak eta koloreek, zapo-reek, prestatzeko moduek... gure elikadura planean, gure gorputzean, gure organoetan eta egunerokoan dituzten eraginak zein diren ikasi eta praktikan jartzeko tresnak emango ditut”, azaldu digu.


### OSASUNA ETA AUTOZAINNTZA

Gizarte honen zati bat laborategietan sortutako elikagaietan begia jarrita dagoen bitartean, bada Diaz de Monasterioguren bezalako jendea ere, oinarrira doana, erroetara. Osasuna modu “integralean eta holistikoan” ikusi eta landu behar dela dio. “Garaian garaiko elikadurak bizitzarako beharrezkoak diren nutrientek ematen dizkigu eta lagundu beharko luke bizitasuna eta osasuna berriskuratzen; jaten dugunak osatu eta osotu egin beharko baikintuzke”, dio. Eta garrantzi berezia ematen die denon eskura egon beharko luke ten autozaintzarako tresnei. Hori ere badu helburu, osasun arloan herritarrek ahalduntzea.

Lehen artikulua, irailekoa, sarean dago jada: [www.argia.eus/albiste/iraileko-kolore-laranja](http://www.argia.eus/albiste/iraileko-kolore-laranja) (*Iraileko kolore laranja*). Ni urrikoaren zain nago dagoeneko. ●



# Elhuyar anaiek baino lehen



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**K**nustrup (Danimarka), 1546ko abenduaren 15a. Tycho Brahe astronomoa jaio zen. Besteak beste, Kopernikoren Ilargiari buruzko teoria hobetu zuen, errefrakzioei buruzko lehen taula osatu zuen eta Johannes Keplerren irakaslea izan zen.

Beraz, astronomiaren alorrean egindako bidearengatik da batez ere ezaguna, baina Stjerneborgeko bere laborategia beste eremu batzuetan ere jarduteko erabili zuen Brahek; alkimian aritu zen luzaroan, botikak topatzea helburu.

Stjerneborg lurpeko laborategia zen, Öresund itsasarteko Ven uhartean eraikitakoa. Laborategirik ez dago gaur egun, baina Brahek erabilitako materialen arrastoak geratzen dira, eta Kaare Lund Rasmussen Danimarka Hegoaldeko Unibertsitateko fisika, kimika eta farmazia irakasleak berriki aztertu ditu, Braheren alkimia jardunaz gehiago jakiteko. Nikela, kobrea, zinka, eztainua, merkurioa, urrea, beruna... aurkitu ditu, baita garai hartako zientzialarientzat ia ezezaguna zen elementu bat ere: wolframa edo tungstenoa.

W ikurra eta 74 zenbaki atomikoa duen elementua Juan Jose eta Fausto Elhuyar anaiek isolatu zuten lehenengoz 1783an. Baina bi mende lehenago Brahek bere laborategian wolframa esku artean izan zuela dakigu orain, eta ez zen lehena izan.

1546an, Brahe jaio zen urte berean, Georgius Agricola minerologo alema-



Tycho Brahe zientzialari daniarra astronomian nabarmendu zen arren, alkimian ere aritu zen, eta berriki jakin da wolframa erabili zuela bere esperimenduak.

niarrak *De Natura Fossilium* liburuan esperimendu baten berri jaso zuen: eztainua galdatzen saiatzen ari zela, ezohiko substantzia baten formazioaz konturatu zen. Substantzia hari wolfram deitu zion. Rasmussenen ustez, litekeena da Brahek Agricolaren lanean izatea substantziaren berri eta, hortik abiatuta, elementuaren propietateak aztertzen hasia.

Wolframa pisu handiko elementua da eta, hain zuzen, hortik datorkio bigarren izena: tungsteno hitzak suedieran du jatorria eta "harri astuna" esan nahi du.

Propietate hori dela eta, elementuarekin topo egin zuten alkimisten jakin-mina piztuko zuen ziurrenik, baina wolframita minerala ez da oso ohikoa eta harekin egindako esperimendu gutxiren berri iritsi zaigu. Rasmussenek uste du Brahek medikuntzarako erabili nahi izan zuela, baina, oraingoz, ez du erantzun garbirik.

Aurrerantzean Braheren laborategiko material lagin handiagoak aztertzeko asmoa du, Elhuyar anaiek baino lehen elementu kimikoa zenbateriano ezagutzen zen eta zertarako erabili zuten hobe jakiteko. ●

## Turismoa vs. geoglifoak

Atacamako Desertua Fundazioak eremu horretako geoglifoak suntsitzen ari direla salatu du sare sozialetan; hainbat argazkiren bidez, basamortura 4x4 ibilgailuetan doazen bisitariak eragiten ari diren triskantza erakutsi dute. 1000 eta 1520 urteen artean egindako geoglifo handiak dira, batzuk 30 metro baino gehiago-koak, eta, beraz, begi hutsez erraz ikus

daitezkeenak. Fundazioak, printzipioz, ez du eskatzen ibilgailuen trafikoa erabat etetea, geoglifoak saihestu eta beste bide batzuk erabiltzea baizik.

2021ean Fundazioak salaketa formala egin zuen Txileko Fiskaltzan, baina hiru urtetan ez da inolako neurririk hartu basamortuko baldintzek orain arte egoera onean gorde duten ondarea babesteko. ●



# ERLE BELTZA MEHATXUPEAN



ERBEL.EUS



**MATTIN JAUREGI ETXEBERRIA**  
BALERDIPEKO ERLEAK-EKO  
ERLEZAINA

**B**adira sei urte nire lehen erlezaintzako ikastaroa egin nuela. Gaur gaurkoz erlezaintza da nire ogibidea.

Lehen erleak erosi nituenean ez nekien arraza ezberdineko erleak zeudenik ere, asukalo zer erosiko nuen bakarren batek "erle beltza izango da, ezta?", galdetu zidan arte. "Erle beltza" zeri deitzen zioten aztertzeari ekin nion eta Erbel elkartearekin egin nuen topo.

Erbelen helburu nagusia *Apis mellifera iberiensis* bertako erlearen hobekuntza programa sortzea eta aurrera eramatea da.

Urte askoz bertako baldintzetara egokitutako erleak erabilia ekoizpenak hobetu, agresibitatea murriztu eta barroarekiko erresistentzia handitu nahi dute; horretarako, ezaugarri egokiak dituzten erleak bereizten dituzte hurrengo belaualdietako erreginak hazteko.

Gauza jakina da tokian tokiko erle populazioek badutela dibertsitate maila egoki bat bere ingurune aldaketetara eta ekosistemako baldintzetara

egokitzeko eta, ondorioz, tokian tokiko populazioak produktiboagoak dira beren ekosisteman daudenean. Zehazki, Iberiar penintsulako populazioa bere ingurunera ongi egokitua egonda ere, defentsa izaera handia erakusten du (erasokorra da), erlakumea botatzeko joera du eta barroa akaroak jo dezake. Hiru ezaugarri horiek ez dira desiragarriak erlezaintzat; izan ere, batetik, erleak mantsoagoak balira, errazago lan egin ahalko litzateke egunerokoan, eta erlezainak gehiago gozatuko luke haiekin; bestetik, erlakume gutxiago botako balute, erlezainak lan gutxiago izango luke eta ekoizpen handiagokoak izango lirake; eta, azkenik, barroari aurre egiteko gauza balira, akarizida gutxiago beharko litzateke eta maneia erraztuko litzateke. Horrek guztiak, gainera, ekoizpena handituko luke.

Badira erle arraza jakin batzuk izaera desiragarriagoak dituztenak, genetikoki hobekuntza horiek garatuak dituztenak eta erlezaintza modernoan erraz erosi daitezke arraza horietako erleak. Ho-

rrelako arrazetako erleak gure ingurura ekartzeak arazo larriak dakartza.

Erlauntza bakoitzeko erreginak hegan estaltzen dira eta arazoak estalketan sortu daitezke, ez dagoelako erlezainaren esku ze arrazetako erlemandoekin estaliko diren. Gure arrazaren dibertsitate genetikoa aldatuko litzateke beste arraza bateko erlemandoekin estaliko balira. Horrek, bertara ongi egokituta dagon arrazaren geneak aldatuko lituzke bertara egokitu gabeko erlemandoaren geneekin. Erregin horren arrautzetatik jaiotako erleak hibridatuak izango lirake eta bere biziraupenean arazoak izango lituzke gure ingurumenera egokitu gabeko genetika izango luketelako.

Beraz, erlezainen erosotasunak eta ekoizpen altuen interesak bertako arraza kolokan jarri du, norberaren gustuko jokaerak dituen erleen arrazak ekarrita.

Erbelen lanari esker bertako erleengan izugarriko hobekuntzak ikusi dira eta erle beltza, bertakoa, beste arraza erakargarrien mailan jarri du.

Saia gaitetzen gure erlearekin lan egiten! ●



## A ZE FAUNA!

# KORRIKA EGITEN DUEN HEGALARIA



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU  
ARANZADIKO KIDEA

**B**este hainbat intsekturen kasuen modura, hau ere “tigre” hitzaren itzalpean izendatzen dute herrialde batzuetan. Jakina, halako izena jarriz gero espero zitekeen ehizarako trebetasuna ezin falta! Eta halaxe da, bai.

Intsektua izaki, metamorfosia betez garatzen da. Larba fasean lurreko aldatxoetan eginiko zuloetan bizi da, eta bertatik, Txu-txu treneko sorgina izango balitz bezala, bat-batean atera eta bere habiaren ataritik pasatzen diren intsektu inozoak harrapatzen ditu. Horretarako baraila ikusgarri bezain beldurgarriak ditu, bere tamainako animalia batentzako, noski... beraz, egon lasai!

Larbaren abdomen lodi eta luzea fase horretan elikagaien bitartez metamorfosia betetzeko metatzen duen energiaren adierazle da.

Helduak oso eguzkizaleak dira eta apiriletik aurrera sarritan ikusi daitezke lur, hormigoi eta zementuzko bideetan eguzki izpiak hartzen. Oso bizkorak dira eta ez da erraza gertutik behatzea, berehala hegan edo korrika ihes egiten baitute. Hori bai, ez dira oso urrutira joaten, oso lurkoiak baitira. Korrika esan dugu eta horrelako animalia txikiak “korrika” ihes egiten duela esatea barregarria irudituko zaizue bati baino gehiagori, baina... Adi! Segundo batean gutako bat ia 80 metro egiteko gauza balitz, zer esango genuke? Hartuko zukeen Usain Bolt-ek ere bere sasoirik onenean! Gure kakalardo txikitxoak bere luzera 40 bider



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU

betetzeko gai da segundo batean. Beraz, errespetua zor, lagunok!

Barailak aipatu ditugu, eta horiek merezi dute, bai, haien inguruko zenbait azalpen ematea. Kolore argiko baraila sendo horiek harrapakinei heltzeko ezezik estalketa bete bitartean bikotea elkartuta mantentzeko ere erabiltzen dituzte. Arrak (txikiagoa izaki) emeari heltzen dio bere bizkarraldean “debalde” garraiatzeko. Jarrera zail eta korapilotsu horretan ere bikotea gauza da abiadura bizian ihes egiteko sortu daitekeen edozein arriskuren aurrean.

Bere kolorazio berde-metalikoa ikusgarria da, bere familiako beste karabido batzuen antzera, eta orban zurixka ba-

tzuk agerian geratzen dira bere berdetsunean. Buruan antena luzexkak ditu eta bere gorpuzkerak armadura baten itxura du, burutik hasi eta hegoen babeserako dituen elitroetan buka. Hanka fin eta ile-duneko intsektua da, nahiz eta hanketako ileek duten kolorazio argiak gure begien aurrean ezkutatu. Aipatu ditugun elitroetako orban zurixka horiek gorritz ingurata daude, elitroen ertzak bezalaxe.

Cicindela generoko beste bi espezie aipatu ziren Alonso eta Bahillok 2019an argitaratu zuten Euskal Erkidegoko Koleopteroen Katalogoan: *Cicindela maroccana* eta *Cicindela hybrida*, biak ere gaur gure arreta merezi izan duen *C. campestris*-en itxura oso antzekoa dutenak. ●

## CICINDELA CAMPESTRIS

*Cicindela campestris*

**TALDEA:** Ornogabea/Intsektua/  
Coleoptera/Carabidae.

**NEURRIA:** 10-15 mm.

**NON BIZI DA?** European, Siberian  
eta Afrikako iparraldean.

**ZER JATEN DU?** Beste intsektuak.

**BABES MAILA:** Ez dago babestuta.

# BORRAJA JARRI ETA JAN



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**N**ai dezu katillu bat borraja loriak?”, idatzi zuen 1906 eta 1908 artean *Baserritarra* aldizkarian argitaratzen zituen artikuluetako batean Biktoriano Iraola Aristigietak. Borraja (*Borago officinalis*) sendabelar sonatua izan da: eztula baretzeko, diuretiko, bihotz-suspergarri, izerdiarazle...

Biktorianok aipatzen dituen loreak gero etorriko dira, neguaren amaiera aldera, baina katilukada horren errezeta jaso, orduan loreak bildu eta behar dituzenean erabiltzeko. Pio Font i Quer farmazialari doktore ezagunak bere *Plantas medicinales, el Dioscorides renovado* (Sendabelarrak, Dioskorides berritua) liburu sonatu eta sendabelarzaileen biblian honela egitea aholkatzen du izerdiarazteko formula: infusioa prestatu behar da, oso beroa eta ugari. Litro erdi bat ur irakin eta ontza erdi bat (hambost bat gramo) borraja lore erantsi. Estali eta pixka bat hozten utzi. Ahalik eta beroen hartu, nahi bada gozatuta, ondo babestu eta bilduta egonik.

Baionan argitaratzen zen *Almanaka Berria*-n, 1885ean, hau argitaratu zen: “Eztula denean edan behar da: murrui, lau lore edo malbabizkuaren tizana”. Jean Elizalde Salaberri apaizak Baionan argitaratzen zen *Gure Herria*-n idazten zituen “Azkaine gure sorterría” artikuluko sortako batean honela dio: “Eztularen kontra ez omen da morroin tizana baino hoberik”. “Murrui” eta “morroin” ere esaten zaio borrajari; baita ere borrai, murrui, porroin, burbuilu, latzura eta asun-aza behintzat.

Izen gehienak borraiarekin lot daitezke, baina burbuilu (burruilu) ez dakit



JAKOBA ERREKONDO / ARGIA CC-BY-SA

non arraiotik etor daitekeen. “Latzura” eta “asun-aza” bere ezaugarri nagusietako batekin lot daitezke: azala iletzotentez josia du, latz antzekoak, zorrotzak, ez zauriak egiteko adinakoak, baina bai nabarmenak. Azal guztian ditu: enborrean, hostoetan eta baita loreen oinean ere. Laztasun horren ondorioz ote da “latzura”, edo “lartzura”? Eta asunarekiko (*Urtica dioica*) konparazioa iletzotetik etorriko zaio, noski. “Asun-aza” izen osatua azaren (*Brassica spp.*) tankera bertsean hostoak ere jaten zaizkiolako ote? Jan, batez ere Nafarroa hegoaldean jan izan bada ere, egun dena zabaldua dago. Hostoa bera baino estimatuagoa da hostoaren txortena; finagoa omen. Ba jendea zoratu egiten da txorten horiei iletzoak kentzen. Nik ez dut lan hori hartzen; hari zakartxoren bat badu bai, kendu eta kitto. Begira: hostoak kendu (barazkiekin nahasita

edo baratzuriarekin erregosita baliatuko dituzu gero), txortena ondo garbitu eta ur irakinetan egosi, bakoitzak nahi adina. Iletzoek ere elikagaiak dituzte eta denak barrura.

Orain landatzen da borraja, kanpoko baratzean bezala negutegian. Azkar hazten den barazkia da eta loretara garatu arte hostoz hosto bil daiteke. Lorea sendabelar bezala nahi baduzu banaka-banaka bildu, ez sortaka; ihintza lurrunduean eta itzaletan eta haizeberritzen den toki batean paper edo oiha batean ondo zabaldua lehortu eta jaso. Azkar lehortzea komeni da, bere kolore urdin biziari eusteko. Borraja basatiak lore urdinak irekitzen ditu. Baratzeetarako lantzen denak, aldiz, zuriak. Zein ote da sendabelarrik onena? Datu bat: loreetan urdina kolorerik bitxiena da; lorea zabalitzen duten 280.000 landare espezieetan %10 besterik ez da urdina. ●

## HOBBEA

## ZEREAL EKOIZLEEN ETA OKINEN MUGAZ GAINDIKO HARREMANAK SUSTATZEN



GARAZI ZABALETA

**N**afarroako Hazialdekoren, Ipar Euskal Herriko Biharko Lurraren Elkartearen (BLE) eta Gipuzkoako Biolurren arteko elkarlanetik sortu berri da HoBBea, mugaz gaindiko proiektua. “Garien bueltan bagenuen aspalditik harremana gure artean, baina, nola-bait, harreman horiek formalizatzeko modu bat da egitasmoa”, azaldu du Lorea Lizarreta Intsausti Hazialdeko koordinatzaileak. Zereal ekoizleak daude Hazialdeko; Biolurren, berriz, okinen taldea dute, gariak hautatzen urteetako esperientzia duena; eta BLEk urteak daramatza laborari-okinen figura sustatzen. Elkarri zer ikasira eta irakatsia badute, beraz.

## BERTAKO GARIAK BERRESKURATZEN

Lau helburu nagusi zehaztu dituzte HoBBea proiektuan. Bata, aipatu bezala, elkarren arteko lankidetzeta indartzea eta egonkortzea. Bigarrena, lurraldeko gari populazioak pixkanaka berreskuratzea: “Gure helburuetako bat da Euskal Herrian garai batean lantzen ziren gari barietateak berreskuratzea eta horiek ogiraino eramatea, alegia, ez daitezela laborategian gelditu”. Bigarren helburu horri lotua doa hirugarrena, jakintza eta ezagutzari dagokiona. Izan ere, hiru taldeetako zereal ekoizle eta okinek badute honezkero sekulako jakintza eta esperientzia, eta hori partekatzea da ideia. “Esaterako, aipatutako bertako gari barietateak agronomikoki nola landu, okintza prozesua nola egin... liburuetan ez dagoen informazioa da hori guztia”, esan du Lizarretak.

Laugarren eta azken helburua, aldaketa kulturala da. “Lanketa eginen dugu bai okinekin eta bai labo-

rariekin, bertako gari ekologikoak erabiltzearen garrantzia azaltzeko eta zabaltzeko, baina baita saltoki eta kontsumitzaileekin ere”, azaldu du. Izan ere, agroindustriatik azken hamarkadetan bultzatu den eredu nagusia irin etxe handiena da, irin etxe txiki asko desagertzera eraman dituen, eta gauza bera gertatu da zerealetan ere: “Merkatu globala da, merkatu handietan ezartzen dira prezioak, eta zaila da bide alternatiboak egitea”. Gaurko okintza guztiz lotua dago irin-industria handi horretara, eta kontsumitzaileak ere ogi homogeneo estandar horretara ohitu dira. Kontzientzia piztea eta masa kritikoa sortzea lan-keta garrantzitsutzat dituzte.

## LEHEN TOPAKETAK MAIATZEAN

Nafarroa Beherean egin zituzten HoBBeako lehen topaketak maiatzean, eta balorazio oso positiboa egin dute. 30 lagunetik gora elkartu ziren, tartean nekazariak, okin-nekazariak, okinak, teknikariak, agroekologiaren munduko elkarteak eta herritarrak... “Elkarrizketa eta ikuspegi trukaketa interesgarriak egon ziren. Batik bat gari barietateen hautaketari buruz aritu ginen lehen saio hartan”, azaldu du Hazialdeko teknikariak.

Udazkenean Gipuzkoan egingen dituzte bigarren topaketak. “Aurrera begira, elkarre bakoitzak jasoak eta karakterizatuak dituen gari barietateak bildu eta horiek ugaltzea da asmoa, ogi probak egiteko”. Zestoako Iraeta auzoan martxan den Amillubi proiektuan ere hazi horiek jarriko dituzte soro batean, ugalketarako. “Gustatuko litzaiguke hurrengo urtera begira, gari horietakoren batekin landatik okintzarako pausoa ematea eta dastatu ahal izatea”, amaitu du. ●

## AURKEZPEN BEREZIAK

## Haziak liburu berria

Miguel Arribas *Kelo-k* eta Marc Badalek *Haziak. Zertarako eta nola egin zureak* liburuak kaleratu berri dute ARGIArekin. Aurkezpenean bi egileek azalduko dute egindako lana eta ikusgai egongo dira Dani Blancok libururako berariak ateratako mikroargazkiak.

**NOIZ:** Irailak 20, ostirala, 18:30ean.

**NON:** Azpeitiko Elikagunean

**Liburuak eskuratzeko:** 26 €

Salgai azoka.argia.eus webgunean eta zure herriko liburu denda eta landare kooperatiban.

**Irailaren 30 arte eskaintza berezia:**

ARGIAkoa eginda jaso etxean opari (argia.eus/eginargiako). ARGIAko kide bazara 24 euroan (idatzi azoka@argia.eus helbidera edo deitu +0034 943 37 15 45 zenbakira).

**Hitzaldia antolatu zure herrian:**  
**bizibaratzea@bizibaratzea.eus**

Ilargia eta landareak  
2025eko agenda

Jakoba Errekondok agenda aurkeztuko du eta kontsultategia eskainiko du; Antton Olariagak agenda honetarako sortu duen “piztiarioa” erakutsiko du eta Unai Agirrek bertso zaharrak kantatuko ditu.

**NOIZ:** Irailak 26,

osteguna, 19:00etan.

**NON:** Tolosan, Topic-en.

**Agenda eskuratzeko:** 14 €

Salgai azoka.argia.eus webgunean eta zure herriko liburu denda eta landare kooperatiban.

**Hitzaldia antolatu zure herrian:**  
**bizibaratzea@bizibaratzea.eus**



# ENRIC MARCO

## Pertsonaia bi, larru berean

Hogei urte pasatu dira bazterrak nahasi zituen iruzurra argitara eman zenetik: Enric Marco, Holokaustoaren ustezko biktima bat, ez zen sekula kontzentrazio-esparru batean egon. Ez zen nolanhiko iruzurra izan, Marco bazelako nor: Holokaustoaren Biktimen Espainiako Elkartearen presidentea zen, eledun ezaguna, gaia pil-pilean ipini zuena, hedabidez hedabide adierazpenak emanda.

Donostiako Zinemaldian estreinatuko dute Moriarti ekoiztetxeok fikziozko *Marco* filma, *Perlak* sailean. Jon Garaño zuzendariarekin hitz egin dugu.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

**30** urte baino gehiago iraun zituenez gezurak. Enric Marco (Bartzelona, 1921-2022) ezagun egin zen Espainian, edo hobe esanda bere istorioa, duela hogei bat urte. Wikipedia kontsultatu nahi ez duenarentzat, hona laburpen bat: publikoki, estreinakoz, 1976an esan zuen Marcok Alemania nazian egona zela preso, kontzentrazio-esparru batean; eta 2005ean ezagutarazi zen, tranpetan harrapatu zion historialari baten bitartez, gezurra zela dena. Egia zen, ordea, Alemania nazian egon zela, baina ez esandako urteetan. Eta nazientzat egon zen lanean. Preso egon zen, baina ez zuen esandako kontzentrazio-esparrurik zapaldu. Ez zen sekula berak saldu zuen “borrokalari antifaxista” hori izan.

Hizlari bereziki ona zen Enric Marco, eta horren bitartez heldu zen Mauthausen eta nazien kontzentrazio-esparruetan egondako deportatuek sortutako Holokaustoaren Biktimen Espainiako Elkartearen presidentea eta eledun izatera. Aurrez, CNT sindikatuko buruzagietako bat izan zen. Karisma eta sinesgarritasuna transmititzen zuen, eta hitzaldi ugari eman zituen, bereziki ikastetxeetan, baina baita espazio agerikoagoetan ere: esaterako, Espainiako Diputatuen Kongresuan. Asko agertu zen telebistan eta hedabide konbentzionaletan, mintzalaririk prestua eta abila zenez gero. Goia jo zuen hor, nahiz berez gorago ere heldu behar zuen. Izan ere, urtero Mauthausenen preso egonikoen topaketak egiten dira, urtez urte presidentetza aldatzen

da, eta Espainia mahaiburu izatea bere proposamena izan zen; 2005. urtea zen hori. Horretarako, lortu zuen estreinakoz Espainiako Gobernuako presidentea bat egotea ekitaldi horietan, José Luis Rodríguez Zapatero, babesa adierazten. Espainiak, mahaiburu izango zenez, hitzaldi nagusia emango zuen: Enric Marco zen hautagai printzipala. Berak eman behar zuen hitzaldia.

Baina gauzak ez zitzaizkion nahi bezala irten. Mauthauseneko egonaldiak baino egun gutxi lehenago, Benito Bermejo historialariak –Alemaniako kontzentrazio-esparruetan egon ziren espainiarren ikerketan aditua– Marcoren egia ezagutarazi zuen. Hilabeteak zeramatzan bere atzetik, susmoa zuelako gezurretan ari zela, dokumentu gorde batzuetan aur-



Pelikulako fotograma bat. Eduard Fernandezek gorpuzten du Enric Marco; laudorio ugari jaso ditu lanagatik.

kituriko informazioek bestelakorik ziotelako: Alemania nazian egondakoa zen Marco, baina boluntario joana zen hara, Francoren eta Hitlerren arteko akordioaren bitartez, espainiar askok Alemaniako nazien armagintzan lan egin baitzuten. Marcorekin elkartu nahi zuen historialariak, aurrez aurre hitz egiteko zeukan informazioaren inguruan. Baina Marcok ez zion jaramonik egin. Bistakoa da zergatik. Urrunegi zihoan, Mauthauseneko hitzaldi hori ematea ez zen txikikeria, eta historialariak ez zeukan egia azalerratu besterik: aurkituriko proben txosten bana bidali zien Holokaustoaren Biktimen Espainiako Elkarteari eta Espainiako Gobernuari.

### **EZ ZEN BIDEA HOR AMAITU**

Gezurretan harrapatuta ere, Marco jauna ez zen isilik geratu. Beste hamarkada ba-

---

Benito Bermejo historialariak ezagutarazi zuen egia; dokumentu gorde batzuk aurkitu zituen, Enric Marcoren esanak gezurtatzen zituen

tez, gutxienez, tematuta segitu zuen gaia-  
rekin. Foku mediatikoen biktima zela zioen, “dibulgazio-lanak” egin zituela deportatuek bizitakoaren berri emateko

eta jende batek eskerrak eman beharko zizkiola, berak ere sufritu zuela Alemania nazian egonda eta beraz zeresana bazeukala...

Bolo-bolo ibili zen hedabideetan, enegarrenez. Iruzurti gisa, baina hor segitu zuen hizketan. Eduki freskoa zen kazetarientzat. Dokumental bat egin zioten 2009an, kamerek Alemaniara lagundu ziotenean, benetan preso egon zen espetxe hartara eta beste lekuetara. Eta 2014an eleberrri biografikoa idatzi zion Javier Cercas idazleak, *El impostor* (Iru-zurgilea).

2024aren amaiera parte honetan, Moriarti ekoiztetxeak *Marco. La verdad inventada* (Marco. Asmatutako egia) fikziozko pelikula estreinatuko dute. Azaroaren 8an helduko da zinemetara. Aurrez, Donostiako Zinemaldiko *Perlak* sailean emango dute.

“ ”

# Marcok bere fikziozko Marco sortu zuen

Jon Garaño

Ez da pelikula erraza izan Moriartikoentzat. Proiektua duela hemezortzi urte sortu zen, eta gutxienez bi aldiz eten; bietan, Enric Marcok "ezusteko" bana eman ondoren. Azkenean, dokumental eran beharrean, fikzio bidez islatu dute istorioa.

Aitor Arregi, Jose Mari Goenaga eta Jon Garañok zuzendu dute, eta Jorge Gil Munarrizek lagundu die gidoigintzan.

✂ GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA 📷 DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

**M**unduko zine-jaialdirik garrantzitsuenetakoa den Veneziakoan egon ostean, hurrengo geltokia Donostiako Zinemaldia du *Marco* pelikulak, eta Vancouverren, Londresen eta Okzitaniako Tolosan ere egongo dira gero, aretoetara iritsi aurretik –azaroaren 8tik aurrera, zinemetan-. Ondoren, pelikulek ohikoa duten ibilbideari jarraiki, 2025ean helduko da telebista eta plataformetara.

Esperientzia “polita” izan dute Venezian, Jon Garañok ARGIAri kontatutaz. “Txalo ugari” jaso zituzten pelikula amaitzean, eta “jende asko” gerturatu zitzaizen gero, pelikulari eta Enric Marcori buruz galdetzeraz. “Interes handiarekin” sumatu zuten jendea, eta oso pozik daude.

## SORPRESAZ BETERIKO IBILBIDEA

Estreinaldietan buru-belarri diren honetan, dagoeneko ibilbide luzea izan du

Moriartiren pelikulak: ez dira alferrik pasatu proiektuaren hemezortzi urte. Garañoren-eta lankidea zen Jorge Gil Munarrizen proposamenari tiraka, Gil Munarriz hainbatetan elkartu zen Enric Marcorekin Bartzelonan, 2006an, iruzurra ezagutu eta urtebetera. Kamerarik gabe. “Dokumentala egitea zen hasierako ideia, baina halako batean Marcok esan zigun Alemaniara joan behar zuela dokumentu batzuen bila, ziurtagiria eskuratu nahi zuelako benetan egon zen espetxe horretakoa”, dio Garañok. Berari lagundu eta bidaia grabatu nahiko zutela esan zioten Moriartikoek, baina Marcok ez zuen gura izan, bidaia oso pertsonala zelako. Ulertu zuten erabakia.

Lehenbiziko sorpresaren atarian zeuden: “Bidaia horretatik bueltatu zenean, esan zigun beste zinegile talde batekin joan zela Alemaniara, eta gainera eskusibotasun kontratua sinatu zuela

haiekin, dokumental bat egiteko; jakina, guretzat *shock* handia izan zen. Ideia baztertu genuen hor”.

Lau urte geroago, Donostiako Zinemaldian, industriako foro batean hartu zuten parte Moriartikoek. Beste proiektu baten finantzazio bila zebiltzan, bilkura pribatuak izan ohi dira horiek, ez direnak ez prentsan eta ez inon ageri. Bada, areto horretatik irten eta han topatu zuten Marco, emazteak lagunduta, butifarra eskuan: dokumental berri bat egitea nahi zuen, berari buruz, ez baitzegoen batere pozik aurreko horrekin. Baiezkoa eman zioten, aukera aprobeztatu behar zutela pentsatuta.

Beraz, handik hilabete batzuetara, 2011ko martxoan, Moriartik orduko hartan Pasaian zuen egoitzara eraman zuten Marco, eta hiru egunez elkarrizketatu zuten: hamabost orduko materiala jaso zuten, galdera-erantzun formatuan.

“ ”

*Marcok, azkenerako, fikzio bat sortu zuen bere irudiarekin. Beraz, zergatik ez fikzio eran kontatu?*

#### BIZITZA GRISETIK IHES

Etortzeaz zegoen bigarren sorpresa: “Materiala hor geratu zen, ez genekien zer egin zehazki, hasiak ginen *Lo-reak*-ekin, eta helduleku gehiago behar genituela uste genuen. Orduan, Javier Cercas idazlea Marcori buruzko autobiografia idazten ari zenean, otu zitzaigun Cercas bera integratu genezakeela dokumentalean, eta fikzio itxura bat ere eman geniezaiokeela proiektuari. Marco ados zegoen, eta adostu genuen berak hitz egingo zuela Cercasekin. Baina ez zuen egin. Jorge [Gil Munarriz] Bartzelonara joan zen berriro ere, eta han konturatu ginen Cercasek ez zekiela ezer; komentatu genion, eta ez zitzaion ideia gustatu. Orduan, Marcok egin zigun jokaldia ikusita, baztertu egin genuen berriz proiektua”.

2014ean otu zitzaien Marcoren bizitza, dokumental baten ordeaz, fikziozko pelikula bidez kontatzea: “Marcok, azkenerako, fikzio bat sortu zuen bere irudiarekin. Beraz, zergatik ez fikzio eran kontatu? Horretaz hitz egiteko aukera ematen zuen; nola sortzen diren fikzioak eta egiaren garrantziak”. Gainera, fikzioak bidea ematen du publiko zabalago batera iristeko, Garañoren esanetan.

Goitik behera ondo asko aztertu dute Garañok eta lankideek Enric Marcoren figura: “Gure partetik, interesgarriena zera egiten zitzaigun, Marco bera, bere irudia, fikzioa dela; bere bizitza gris horretatik ihes egiteko beste Enric Marco bat sortu zuen, eta horrek arrakasta lortu zuen, besteak ez bezala”. Marco gai zen jendea hunkitzeko, miresmena lortzeko eta maitasuna jasotzeko. “Horregatik egin zuen”, esan du Garañok.

Nabarmena da, eta Garañok horretan egiten du azpimarra, egia ezagutarazten denean ere Marcok ez diola “erabat uko egiten” sortu duen irudiari, eta horri “eusten” diola. Beraz, Marcok bere Marco propioa sortu zuenez gero, fikzioari ekitea zilegi ikusi zuten: “Geure buruari esaten genion, fikzioa egitea erabaki

genuenean, sor genezakeela hirugarren Enric Marco bat”.

Horrez gain, sakonekoari begiratu, zer pentsatua eman dezaketen hainbat gai ere jorratzen direla uste du Garañok: “Nola kontatzen zaizkigun istorioak, batzuetan istorioak manipulatu egiten direla, nola ulertuak diren, egilearen eta hartzailearen artean dauden paktuak nolakoak diren... eta nahi dugu, nolabait, Marcoren izpiritua kutsatu”. Istorio bat manipulatzeko bada, hala ere, sarri izan ohi du errealtatearen parte bat, txikia bada ere; hor du egia puntua. Marcorena, funtsean, horixe zen: Alemania nazian egon zen, baita preso ere. Alegia, errealtateko gauza batzuk hartu, fikzioarekin nahastu eta diskurtso propioa eraiki zuen.

Egia eta egia ezagutzea da pelikularen gai garrantzitsuenetako bat. Hausnarke-ta batera eramán gaitzakeela uste du Garañok: “Ez dakigu zer den egia eta zer ez, segun eta zein gaietan informazio ugari azaltzen baitzaizkigu, denak egia gisa esanak dira, eta post-egiaren garaiotan, mundu korapilatsu honetan, uste dut inportantea dela bereiztea zer den egia eta zer ez; hori ere kontatu nahi genuen pelikulan”. ●

Jon Garaño, 2024ko martxoan, ARGIAri eskainitako beste elkarrizketa batean.



# MUSIKA HAMABOSTALDIA: GOGOETA BATZUK

Edizio asko dira orain arte; Espainiako Estatuko musika klasikoko jaialdirik zaharrena da. Behin amaituta, une egokia izan daiteke aurtengo edizioaren balantzea egiteko, baina baita jaialdiaren bizitza luzearen balantzea egiteko ere. Jaialdi bikaina da, oso. Baina hausnartu egin behar da, eta asko, haren deribari buruz. Hausnarketak askoz gehiago hartuko luke; musika klasikoak gure inguruan duen egoera izan behar du ardatz. Egoera hori hobetzeko baliteke Musika Hamabostaldia instrumentu ona izatea. Horregatik, hausnar dezagun jaialdiari buruz.

 MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

**H**ainbat hedabidetan irakurri ahal izan dugu edizio honen emaitza arrakastatsua izan dela, pandemiaren aurreko diru-bilketak berreskuratutakoa. 900.000 euro inguru lortu dira leihaitan. Albiste bikaina da. Denok dakigu dirurik gabe ez dagoela rock and rollik. Eta ez dago ez rock-and-rollik eta ez klasikorik. Hori egia da.

Baina hori Hamabostaldiko albiste nagusi gisa nabarmentzea gainazalean geratzea dela iruditzen zait. Helburu bat gehiago behar luke horrek; horrelako jaialdien bidez benetan lortu nahi dena, behar luke izan, gure herritarren maila musikala igotzea. Ziur aski, erraza da esatea dirua ez dela “lehenengo gauza” jaialdia kudeatzen ari ez denarentzat. Egia da. Baina kudeatzaileek kontuan hartu behar dituzte beste motibazio batzuk dituztenen iritziak, eta ikuspegi zabala izan behar dute.

## PUBLIKOAREN PROFILA

Hamabostaldia kezkatu behar duen gaietako bat publikoa berritzea da. Denok dakigu Hamabostaldiko publiko

nagusia nahiko adinekoa dela. Auditorioan ikusten da, ez da egiaztapen gehiagorik behar. Edonor gazte senti daiteke musika klasikoko kontzertu batean, eta bereziki Hamabostaldian, ingurua ikustean. Eta, kontuz: publiko leial hori ere zaintzen jarraitu behar da, dudarik gabe. Erronka publiko gaztea erakartzea da, jaialdi honen etorkizuna baita, eta gure herrian maila kulturalari eustea bermatuko baitu.

Ziur naiz Hamabostaldiko kudeatzaileek gauza bera pentsatzen dutela. Eta beraiek hausnartuko dutela nola lortu publiko gazte hori. Ez da lan erraza. Beti bezala, inbertsioa beharko luke; 900.000 euro horietako askoren inbertsioa. Ziur aski, Hamabostaldiaren urte osoko zeregina ez litzateke mugatu behar abuztuan egiten diren kontzertu batzuk antolatzea. Musika klasikoak bultzatu eta sustatzeko lana egin beharko litzateke urtean zehar.

Adibidez, edizio bakoitzeko ziklotako bat den Hamabostaldi ibiltari hori ikasturte osoan zehar egin beharko litzateke gazteen artean musika klasikoa hurbiltzeko eta sustatzeko, Eusko Jaur-

laritzako Hezkuntza eta Kultura sailen laguntza sendoarekin, noski.

## MUSIKA KLASIKOA GARAIKIDETU

Hausnartu beharreko beste gai bat –eta gai horri buruzko iritzi positiboa dut, ñabardura batzuekin–, eskaintzen den programa motarena da. Guztiz ulergarria da urtez urte Hamabostaldira joaten den publiko ultraklasiko hori fidelizatzeke, behin eta berriz atseginez entzuten diren obra horiez beteriko programak eskaintzera jotzea. Klasiko popularrak, esan genezake. Eta aitortu behar dut plazer handiz entzun ditudala edizio honetan Mozarten Requiem-a, Carmen opera, Berliozen Sinfonia fantastikoa edo Radio Franceko Orkestrak eskaini zuen Suzko txoria bezalako obrak. Era berean, aitortu behar da –eta hemen ñabardurak– Musika Hamabostaldiak ahalegin handia egiten duela gutxiago entzuten diren eta hain trillatuak ez diren obrak sartzeko: Shostakovichen Stepan Razinen ekuzioa, Ravelen kutixia den Shérézade obertura edo Beethovenen Missa solemnis, hain maiz entzuten ez dena.



Budapest Festival Orchestra izan da aurtengo emanaldi esanguratsuetako bat.



MUSIKA HAMABOSTALDIA

Eskertzekoa da. Baina nire proposamena izango litzateke Kursaal zikloan, jaialdi honetako ziklo nagusian, musika garaikideko lanak sartzea. Jakina, badakigu musika horri eskainitako ziklo bat dagoela, baina aurtengo lau kontzertu bakarrik osatu zuten. Bai, badakigu ez dela gehiengoaren gustuko musika, baina sustatu egin behar da. Gainera, Euskal Herrian konpositore bikainak ditugu gaur egun, eta konpositore horien estreinaldiak eskaini litezke. Bide batez, euskal musikari bultzada eta ikusgarritasuna emanago genioke, eta hori jaialdi honetako elementu bereizgarri ere bihurtu liteke. Benetan apreziatzen dut Ravel programetan den bakoitzean, garai guztieta-ko euskal konpositorerik onena baita ziurrenik, baina ez legoke gaizki beste euskal sortzaile batzuk sarriago programatzea, lehengoak eta oraingoak.

Victoria Eugenia ere faltan sumatzen dut. Ezagutzen ez ditudan arrazoiak direla eta, kontzertu gutxi eman dira han, nahiz ganbera-musikarako espazio paregabea da, askoz ere bilduago eta akustika ona duena. Are

gehiago, uste dut interesgarria litzatekeela ganbera-musikaren zikloa indartzea, proposamen gehiagorekin. Zalantzarik gabe, San Telmo museo-ko klaustroak badu bere xarma, baina kanpoko soinuek ez dute laguntzen, eta leku deserosoa da entzuleentzat.

### ESPazio EGOKIRIK EZ OPERARENTZAT

Ez dut nahi artikulu hau kritiken arrosarioa izatea. Alderantziz, iradokizungun bat izatea nahi nuke. Eta horien artean argi eta garbi bat: Hamabostaldia opera antzeztuak eskaintzeko ideia ahaztu beharko lukeela uste dut. Ziur aski, Kursaalak ez du espazio egokirik eskaintzen, ezta halako jaialdi handi baterako aurrekontuak ere, ez du nahiko margenik uzten opera-emanaldi on baterako. Aurtengo Carmen operak huts egin zuen, pobrea izan zen, eta jaialdi honek ez du horrelakorik merezi. Zorionez, Patrick Alfaya zuzendariak iragarri du datorren urtean opera izango dugula kontzertu bertsioan. Askoz ere duinagoa, ezin bada goi-mailako produkziorekin

eskaini. OLBEn oso ondo egiten dute. Utz diezaiogun operaren monopolioa, oraingoz.

Jakina, ezin dut aipatu gabe utzi 85. edizio honek utzi didan inpresioa. Ezin izan dut ziklo guztietara joan, ia ezinezkoa da. Baina ziklo garrantzitsuenetako kontzertu aipagarrienetako batzuetara joan ondoren, parte hartu duten orkestren kalitate handia nabarmendu behar da, horien artean Milango Scalako Orkestra, Riccardo Chailly buru zuela, eta Radio Franceko Orkestra, Mikko Franck zuzendari zuela, taldearen txinpartak aterata.



Beste hitzordu batzuk ere izan dira, baina ez hain zorionekoak, hala nola lehen aipatu dudana *Carmen* opera, edo Beethovenen *Missa Solemnis*, Euskadiko Orkestraren eskutik, Donostiako Orfeoiarekin batera.

Hori bai, urte urte etortzen den publiko leial horren berotasunak bere horretan dirau. Musikaren magiak dena egin dezake. Baina horrelako jaialdi baten ezin du dena magiaren edo nolabaiteko ohikeriaren esku utzi. Asko dago egiteko. ●



## Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA OIHANA ARANAK ZENBAT BIZI SAIAKERA LIBURUAREN PASARTE BAT IRAKURRIKO DUZU.



## Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

7	3			1		6		
5	9			6	8	3		
2		6		5		9	8	1
	1		9	8	5	7		
4	5					1		
8	6			4	2		9	
		4	5		1	8		7
	8	3	7			4		9
9		5	8		4		1	6

ERRAZA


5	3		4					7
2		7	6		3		9	1
	1							
			3				7	
1		3	7	4	5	9		
		4		6				5
	2				4			8
								3
3				1	4			

ZAILA

## 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Lerde, adur.
2. Ganaduaren gerizpe.
3. Uztaile.
4. Koipea.
5. Nolatan



## Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				R	U	S	T	A
2	O				T	S	I	K
3	P	A				I	L	A
4	M	U	S					U
5	B	E	L	D				I
6	L	U	R	M	U			

## EBAZPENAK

9	7	5	8	3	4	2	1	6
1	8	3	7	2	2	6	4	5
6	2	4	5	9	1	8	3	7
8	6	7	1	4	2	5	9	3
4	5	9	6	7	3	1	2	8
3	1	2	9	8	5	7	6	4
2	4	6	3	5	7	9	8	1
5	9	1	4	6	8	3	7	2
7	3	8	2	1	9	6	4	5

ERRAZA

3	7	8	2	1	6	9	4	5	9
4	6	5	8	7	9	2	1	3	
9	2	1	5	3	4	7	6	8	
7	9	4	1	6	2	8	3	5	
1	8	3	7	4	5	9	2	6	
6	5	2	3	9	8	1	7	4	
8	1	6	9	5	7	3	4	2	
2	4	7	6	8	3	5	9	1	
5	3	9	4	2	1	6	8	7	

ZAILA

**PUZLEA:** "LASAI, NI ERE EGON NAIZ ERDARAKADAK EZ IDAZTEKO SABINISMOAK ERABILTZEKO PUNTUAN. EZ DUT, HALERE, EUSKAREN TALIBAN MARMARTIAK IZAN GAITEZEN NAHI".  
**5XS:** 1. HAGUN, 2. ABARRO, 3. GARIL, 4. URINA, 5. NOLAZ.  
**HIZKI BERAK:** 1. TURRUSTA, 2. ORTUISIK, 3. PATRULA, 4. MUSUTRUK, 5. BELDURTI, 6. LURMUTUR.



## 3/4 ez ulertzea

IÑIGO SATRUSTEGI

**A**skorentzat oporretako azken eguna da. "Udari amaiera bikaina emateko plana", adierazi du batek. Igande iluntzea da eta ikusle talde frankestein bati eman dio ostatu Zentral aretoak. Agian hauxe da Iruñeko sektore jakin batzuk Flamenco On Fire jaialdira gerturatzeko aukera bakane-takoa. Txoznetan ere entzuten dugu ba Califato. Bide batez, gaur bertan jakin dut hiru bider lau dela, eta ez hiru laurden.

Lehenik, "agure" deitzeko moduko adina daukan gizon bat, bandak lagun-durik, aulkitxo batean eserita. Zaharregia dela pentsatu dut taldeak duen erritmoari segitzeko (musikalki eta festibaletako birari dagokiona). Koplaka eta bokalak asko luzatzen kantatu du. Ez dakit mozkorregi-edo dagoen, baina ez diot ezer ulertu. Pozik bai, hori

igartzen zaio. Andrés de Jerez omen. Lagun batek *txibatu* dit geroago.

Gero sartu da abeslaria eta hor gehi-ago kuadratu dit. Hiru egun Iruñean. Hilabete asko daramala depresioarekin. Guardiazibila nanana. Honaino etorri gara Andaluziatik... Horiek izan dira kontzertuan harrapatu ditudan pintzelada bakarrak. Honi ere ezer gutxi ulertu diot.

Musika gustatu zaidan? Kanta batzuk bai, beste batzuk ez. Oso luzea egin zait, momentuka motela ere bai. *Critto de lâ Nabahâ* hasieran egin dute (rave-prozesioa, denok ezagutzen duguna), eta ordutik aurrera, denak ezezagunak, eta nire gusturako aipatutakoaren mailara iristen ez direnak. *Rumba Portuguesa*-rekin ere dantzatu gara. Tekno pixka bat zegoenetan publikoa gora etorri da. Argi dago flamenkoa baino, zer den herriak gehiago nahi duena. Folkloriken mundua

## CALIFATO 3/4

**NOIZ:** irailaren 1ean.

**NON:** Iruñeko Zentral aretoan.

ezagutzen ez dudan arren, ikusi dut jendea bereziki piztu dela abesti batekin, eta pentsatu dut Durcal edo horietako bat bertsionatu dutela. Dokumentazio lan azkar batekin konfirmatuta: Lola Flores handiaren -zeren eta horiek guztiak ziren handiak- *Historia de un amor* kanta zen.

Gauza gutxi dut esateko, ez baitut ulertu. *Makarrada* bat da, beste testuiguru batean erosoago entzungo nukee-na? Folklore (ezkerretik) modernizatzeko saiakerak gustatzen zaizkit, baina gaur ez dut konektatu. Lehen banuen nire buruarekin autokonbentzitzeko zera bat. Baina nahikoa da, filtroa jartzen ikasi dut: Ez zait gustatu.

Eta, halaxe, heldu zaigu promesentzako bigarren aukera. Espero dut datorren ikasturtea ez dela hasiera hau bezain makur joanen. ●



LIBURUA

# Hori dena eta askoz gehiago



EREIN

## BARKAMENA EXISTITUKO EZ BALITZ BEZALA MARIANA TRAVACIO

EREIN, 2024

**AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI**

zenburuak autolaguntza liburu batena eman lezakeen arren Ereinek narratiba sailean argitaratu duen *western* itxurako testua da honako hau. Fernando Reyren itzulpen bikainean Mariana Travacioren lana lehen aldiz irakur dezakegu euskaraz.

*Han, bizi ginen tokian, iparrak jotzen zuen beti.* Horrela hasten da jakinguraz eta liluraz eskutik eramango gaituen testu hau. Gorrotoz eta mendekuz jokatzeak dituen ondorioen inguruan ari zaigu nobela, baina gorroto eta mendeku logikaren barruan dauden bizimodu baten bitartez kontatua. Alegia, inongo moraltasunik ezarri nahi izan gabe. Gizonak dira protagonista, baina emakumeek mundu horretan egiten dituzten ekarpenak sotilki baina kontatu egiten dizkigu.

Modu bikainean erabili du autoreak narratzailearen ahotsa. Lehenengo pertsona pluralarekin hasten bada ere (gu),


sarri egin du lehenengo pertsona singularrera salto eta Manoelen ahotsa eman digu. Modu horretan gorrotoz eta mendekuz jokatzen duten horien barne gatazkak (errua, ansia, ezinegona eta zalantza besteak beste) ere erakutsita.

Lopretetarrekin gertatutako hainbat kontu kontatzeko hirugarren pertsona ere erabiltzen du ahozkotasanetik gertuago dagoen erregistro batean. Istorioa entzuten ari direnak sentituko duten kuroisitate bera pizten du irakurlearengan.

Egiturari erreparatzen badiogu konturatuko gara liburuak dituen 139 orrialdeak 62 kapitulu motzetan daudela banatuta. Eta, kapitulu batzuk orrialde erdi bakarrik hartuko dutela, zurtasun asko utzita irakurketan zehar (*jakingo ez ditugun gauza guztien seinale izan daitzkeenak*). Estilo aldetik, ekintza gogor baina gutxi batzuen kontakizunak nahastentzira deskribatzaileak diren atalekin.

Pausatuak dira atal horiek: ederrak, paisaiaren handitasuna erakusten dutenak, zaldien trostak sortzen duen hautsa gure sudurretaraino sartzeko kapazak (*zaldia hautsa harrotzen zetozen zerumugan ikusi genituenetik*). Sakonak eta limurtzaileak, zentzumen guztiak aktibatuko dizkiguten deskribapenak dira.

Egitura eta estiloa kontuan hartuta berezia iruditu zaidan efektua sortzen du: azkar irakurtzen da, arina da eta bizibizia. Baina,aldi berean, liburuak barne denbora geldi eta mantso doanaren sentsazioa dugu. Gorrotoak poliki-poliki hartzen du pertsonaien barrena. Eta, beraiek gertatutakoa ahazten ez duten arren, nik liburu hasiera berriz irakurri behar izan dut iskanbila guztia zerk piztu zuen gogoratzeko. Giza kondizioa dakarkigu gogora: maitasuna behar eta gorrotoz jokatzen duen espezie autodestruktiboa. ●



MUSIKA

# Erreskatatu-ka-tu-tu-ka



XALBA RAMIREZ

**M**usika elektronikoa Euskal Herriara iritsi da!" irakur daiteke, azken urteotan, hango eta hemengo titularretan. Kazetariak entrega datak dituzte pentsatzeko ordua iritsi aurretik, eta, klaro, horrela ezin da. Esana dugu lehendik: musika elektronikoa Euskal Herrian rocka bera baino zaharragoa dela. Edo tira, pareko ibili zirela. Mikel Laboaren *Bat-Hiru*-n (Herri Gogo, 1974) Moog sintetizagailuak erabili zirela eta abar, adibide, besterik ez.

Kontua da Ondarroatik berreskuratutako dituztela 1986-89 artean grabaturiko pare bat maketa, eta argitaratu gabeko kantu berri batzuekin dakartela: Tuka esaten da (tu-ka-tu-tu-ka, erritmo kutxe egiten duten soinua). Retroa bueltan delako akaso, baina freskoak dira oraindik kantak, nola da posible denboran bidaia hau?

Garaian, akaso, ez zuten nahi beste tokirik topatzen formatuarekin (baxua, gitarra eta erritmo kutxa), eta eralda-

tzea erabaki zuten, Piztiak taldea sortu. Bitxia zait. Kantuok berreskuratuta, garaian garaikoak diruditelako, baratzeko terminologian. Ez al du inork entzuten Itoizen *riff* eta melodia zaporerik bertan? –bada gai horretan biziki interesatzen zaidan zerbait, eta da, nola eskualde bereko taldeek antza kristona hartzen zuten, eszena deitzen zaiona sortuz; egun, dirudi dena dela nitxo, eta ezin dela beste inorena errepikatu–.

Eta galderak: Zergatik itxaron dugu horrenbeste, gure 1980ko elektronika berreskuratzeke? (ikus Alberto Lizarralderen *Haizetxe*, esaterako). Zer ikusirik ba al du ETak diskoteken aurka egindako borrokaldiak? Zer ikusirik ba al du musika elektronikoa eta drogen arteko ustezko harremanek? Alegia, zer harreman du euskal musikaren norabideak estrategia politikoeekin? Eta batez ere abertzaletasunarekin?

Ea, tiroa ondo apuntatzeko: kontua ez da (batzuek eztabaida murriztu nahi du-



## TUKA ESATEN DA TU-K

AUTOEKOIZPENA, 2024

ten arren) Euskal Rock Erradikalak *dena* bereganatu zuenik. Kontua da 1990-2010 aldian, hautatutako isolamenduan bizi zela euskal kulturaren zati handi bat –jakina da, Esan Ozenki, NG eta FM-ren salbuespen apoteosikoarekin–.

Alegia, Euskal Herrian ez da beti berandu eta gaizki kopiatu. Izan dira uneak, berak ere garaiko ahots propioa izan duenik. TU-K-ren hau niretzat adibide on bat da, orain modan dauden formatuak eginez, gu geu jaino aurretik. Beste bat, inork gutxi dakiena: traparen erritmoak lehenago etorri zirela iberiar penintsulara Nizuri Tazuneriko Norzoneren bitartez, Pxxr Gvng-ekoen bidez baino. Beste gai bat bat da, badakit, baina nonbait jarri behar.

Total. Erreskatatutako lanek alegrantzia ematen digutela, eta esaiezu osabaizebe etxean gordeta dituzten maketak argitaratzeko. Horrela hobeto ulertuko dugu Euskal Herria ez zela izan esaten den hori. Eta izango dela beste zerbait. ●

## Gizonak falta dira Hondarribiko alardean

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**B**a Iparragirrerena ere –“Gernikako Arbola da bedeinkatua” eta abar– ez digu balio jada Hondarribian. Hemen dagoeneko ez da ezer errespetatzen, katxondeo hutsa da. Beste tradizio sakrosantu ukiezin horietako bat joan da pikutara irailaren 8an: emakumeek ere desfilatzen duten konpainia baten alboan Gernikako Arbola plazan ez jartzeagatik, alardeko gainontzeko zapeldunak herrian bueltaka aritu ziren, alferrik denbora galtzen. Behin edukiko aparkatzeko lekua erreserbatuta erdi-erdian eta ibili behar da horrela, e?

Eta klaro, gero pasatzen dena pasatzen da: Gregorio eta 4.000 gregarioak ezin garaiz iritsi alde zaharreko Santa Maria atepetik goizeko bederatzietan puntu-puntu pasatzeko. Horrela galdu zuen Perikok Frantziako Tour bat –akordatu ziren, bai, ordutegian sartu ahal izateko goiz osoa erdi-esprintatzen desfilatu behar izan duten alarde tradizionaleko seniorrenak–.

Hain izan da infantila ze, nondik begiratzen diozun, umeentzako ipuin baten antza baitauka kontuak. Kalabaza hartu eta, kriskitin, dantzaldirako zalgurdi bihurtu daitekeen bezala, Betiko Alardea, kriskitin, Ez Hain Betiko Alarde bilakatzen da. Ups. Orain ere esan dut. Izan ere, horrek pentsarazi lezake gauzak kanbiatzeko gogoia edukiz gero, kriskitin, kanbiatu daitezkeela. Baina gauza bat eta bakarra ezin da inondik inora aldatu, behin ere ez, baina nora ailegatu behar dugu horrela, hau desmadrea, Jesus, Maria eta Joxe, ezta hatz-mamiak gastatu arte kriskitinak jota ere: emakumeek txorrada bakar bat gehiago jasan behar izan gabe desfilatu ahal izatea.

Eta ideia hori alde batetik eta bestetik frijitzen pasa dezaket artikulua osoa, baina eske gauzak aspalditik hain garbi daude-



ARANTXA IRAOLA / BERRIA

nean, irakurleak behar du originaltasun pixka bat, espero gabeko gidoi-aldaketa bat, efektu berezi batzuk, nik zer dakit. Beraz, kapen egingo dut ondoko ideia honetan: Hondarribiko alardeari falta zaiona, momentu honetan, gizonak dira. Lege zaharreko hizkerak imajinarazten dituen gizon haiek bezalakoak, alegia. Gizon portatzen zekitenak. Gizonki azaltzen zirenak.

Gizon portatu. Gizonki azaldu. Espresio horiek inspiratu zituzten gizasemeak mota askotakoak izango ziren seguru, orduan ere gehientsuenak ez ziren pieza bakarrekoak izango, baina lehengo hizkeren karga negatibo guztiak sobran ezagutzen ditugunez, begira diezaiogun une batez beste aldeari: gutxienez maskulinitatea lotzen zen bizitzaren aurreko jarrera batekin, zeinak ardatzean zeukan gauzak egitea egin behar diren bezala. Gizonari, hitz horiekin, zainetan odola edukitzea exijitzen zitzaion. Edo, gutxienez, fundamentu pixka bat. Gizon-

ki azaldu: tokatzen denean pauso bat aurrera emateko ausardia eta kemena edukiki. Gizon portatu: liskarra xaxatu orde, irtenbideren bat bilatzeko artekari izan.

Gizona, eta ez lastozko txotxongiloa. Gizona, eta ez azioa egin ondoren edozein aitzakia fabrikatzen duen mutiko laineztua. “*Consideramos que no se daban las condiciones de seguridad necesarias para hacer lo que hacemos todos los años. Y decidimos no incorporararnos a Gernikako Arbola hasta que hubiera pasado Jaizkibel*”, adierazi du gregarioen burgomaisu Gregoriok. Nekez sinetsiko dizu numeroari buruzko esplikazio hori Borboi familiako kide batek ere –entendimendu mugatuko pertsonen adibide bat jartzeagatik–.

Beraz, Iparragirre deskartatuta, eta ikusitakoak ikusita, *Bereterretxen kantoria*-rekin pasako ditugu hurrengo 365 egunak: “Habil, eta so egin ezan gizonik denez ageri”. ●

Liburua **26 €**  
[argia.azoka.eus](http://argia.azoka.eus)



# Haziak

Zergatik eta nola egin zureak

**Miguel Arribas Kelo** eta **Marc Badal**

Irailak 30 arte eskaintza berezia:

→ ARGIAkoa eginez gero liburua opari  
[argia.eus/eginargiako](http://argia.eus/eginargiako)

→ ARGIAko kidea bazara 24 €-an  
[azoka@argia.eus](mailto:azoka@argia.eus) +0034 943 37 15 45

Liburuaren aurkezpena  
Irailak 20, ostirala, 18:30ean  
Azpeitian, Elikagunean

+ **Dani Blanco**ren argazkiak ikusgai

Hitzaldia antolatzeko:  
[solasaldiak@bizibaratzea.eus](mailto:solasaldiak@bizibaratzea.eus)

LAN ESKAINTZA



# komunikazio proiektu arduraduna behar du

Komunikazio proiektu desberdinen ardura hartuko duen kide berri baten bila ari gara.

---

Lanpostuan interesa izanez gero, bidali curriculuma, [curriculum@iametza.eus](mailto:curriculum@iametza.eus) helbidera, irailaren 15a baino lehen, "komunikazioa" erreferentzia adieraziz.

IKUSI HEMEN LAN  
ESKAINTZA OSOA:

